



Euskalduntzea

Lidertza nola
baliatu erabilera
areagotzeko

Irkus Robles-Arangiz

«Askorentzat
artista ona
artista hila da,
baina ni hobeki
nago bizirik eta
pintatzen»

Gureola

Hernaniko
paper-fabrikari
azkeneraino
eutsiko diote
langileek

Net Hurbil

SILEX
teknologiak
arma nuklearren
hedatzea ekar
dezake

BEZaren igoera

Arte biziak
kili-kolo Hego
Euskal Herrian

Adrian Zelaia

Ekai Center

«Handien estrategian sartuz gero
Kutxabanken kontrola
galduko dugu»



V. IBARRA GALTZAKOMIK

KOMIKI LEHIAKETA 2012



SARIAK

18 URTETIK GORA:

Lehenengoa:

600 € eta argitalpena

Bigarrena:

400 €

Aipamena:

marrazketarako materiala
+ komiki bilduma bat

12 URTETIK 18 URTERA BITARTEAN:

Lehenengoa:

400 €

Bigarrena:

200 €

2 Aipamen:

komiki bilduma bana

12 URTETIK BEHERA:

Lehenengoa:

komiki bilduma bat eta
marrazketarako materiala

4 Aipamen:

komiki bilduma bana

PARTE HARTZAILEEN ARTEAN MAHALA BASERRIKO PRODUKTUEN 4 SASKI ZOZKETATUKO DIRA.

Oinarriak eta informazioa:
<http://galtzakomik.blogspot.com.es/>
www.galtzaundi.com
kultura@galtzaundi.com
943 655 004

Antolatzailea



Laguntzailea



Babesleak





Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asumendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2012ko urriaren 7a, 2.339. zenbakia

DEABRUAREN ABOKATUA

MIKEL MARTINEZ: «Esaten ditugunak antieuskaldun baten ahoan mingarriak lirake». ARITZ GALARRAGA / 4

ASTEKO GAIA

EUSKALDUNTZEA EREMU SOZIOEKONOMIKOAN

Liderrak nola baliatu erabileran eragin dezaten.
ONINTZA IRURETA AZKUNE / 5

PERTSONAIA

IRKUS ROBLES-ARANGIZ: «Artearen industria eta sailkapen guztietatik kanpo nago». SUSTRAI COLINA / 12

IRITZIAREN LEIHOA

IRAGANA, ORAINA ETA ETORKIZUNA

GARBINE BIURRUN MANCISIDOR / 18

FRACKING ROSA M. MARTÍN SABARÍS / 20

ERREPIDEEN FINANTZAKETAZ BI HITZ ESTITXU UGARTE / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Amets. AMETS ARZALLUS / 20

BERTSO BERRIAK Kode penal berria. MIREN AMURIZA / 21

ERDIKO KAIERA

BEZ-AREN IGOERA KULTURAN Arte biziak luxu bilakatuko dituen neurria. MYRIAM GARZIA / 23

DONOSTIAKO ZINEMALDIA

SAIL OFIZIALA Goya sarien bezpera. GORKA BEREZIARTUA / 26

ZABALTEGI Errelatoak. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 27

LIBURUAK GEMA LASARTE / 28

DISKOAK IKER BARANDIARAN / 29

EZPALAK JON TORNER / 30

ALEA GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 31

IHESI ANBOTO Ahuntzen eta Mariren erreinuan.

GORKA AZKARATE / 32

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 38

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 39

TERMOMETROA

ADRIAN ZELAIA: «Handitzeko operazioekin Kutxabank kiebran legoke». URKO APAOLAZA / 40

GUREOLA-CELULOSAS HERNANI Langileek ez dute itotzen utzi nahi paper fabrika. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 44

KATALUNIAREN BIDE-ORRIA Nola heltzen da independentziara? JON TORNER / 46

BERO-BEROAN JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

NET HURBIL SILEX teknologiaz erregai nuklearra edonoren eskueran. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

MIKEL MARTINEZ

Ez dok hiru, ez bi: bakarra da antzerki munduan.

| ARITZ GALARRAGA |

Argazkia: Iñigo Azkona

«Esaten ditugunak antieuskaldun baten ahoan mingarriak lirateke»

Barka Mikel, uste nuen Patxo Telleriarekin etorriko zinela...

Ez, ez da etorri, baina bere lana egin du. Gidoia pasatu dit, beti bezala: elkarrizketa honen erantzun guztiak; eta nik txintxo-txintxo ikasita ekarri ditut.

Aktore onen moduan.

Bueno, agian apur bat inprobisatuko dut. Beti bezala hori ere.

Izan ere izatezko bikoteen aitzindariak izango zarete zuek biok.

Nahi bai, baina keba, ez gara bikotera hel-tzen. *Azpearea!* gehien jota.

Tira, arrazoi duzu; baina ezin kexatuko zara: Patxo Pertsonaia atalean atera genuen; zu, aldiz, Deabruaren Abokatuan.

Ez naiz batere kexatzen. Deabrua nahiago sexu eta gatzik gabeko aingerutxo baina. Eskerrik anitz.

Elkarrizketa hartan irakurria: "Groucho Marx edozein egoeratan zen Groucho, eta Mikel beti da Mikel". Zer esan nahi zuen, ordea, ideiarik ez. Jenialtasunean enkasillatuta nagoela.

Ados, baina zigilua duten aktoreak ez dakit zer diren: jenialak, edo arrunt alferrak.

Post-aktoreak dira, bistan da.

Euskara eta euskaldunaren kontura egiten duzue teatroa; eskuin muturreko hedabideen antzeratsu.



Esaten ditugunak, antieuskaldun baten ahoan mingarriak lirateke, baina euskaldunzale baten ahoan dibertigarriak eta osasungarriak.

Iturri agortezina duzue gaia, gainera: dekalogia osatzeko bidean izango zarete honezkerok.

40ra ere irits gaitezke. Trilogiaren laugarrena egin berri dugu; beraz, 36 antzerki lan baino ez zaigu falta: miazkatuta dago.

Eta ezer gutxirako balio duen hizkuntza ikasten ari dena, zer? Bere kontura barre egitea ere...

Bai, gure kontura barre egiten dugu: lotsagarria! Eta konturatzen gara euskarak, beste gauza batzuen artean (ligatzeko...), barre dextente egiteko balio duela.

Orain esango didazu umoreak zorne kolektiboak kanporatzeko balio duela eta kalaka hori guztiori.

Esklusiba bat emango dizut. Adi!: "Umoreak zorne kolektiboak kanporatzeko balio du eta kalaka hori guztiori".

Oso da teoria polita, baina esplikaziozu txantxa jasotzen duenari.

Txantxa jasotzen duenari zaplazteko bat esplizitatu behar diogu, batzuetan, barre historikoa mozteko.

Gizagaixo hori da benetako super-euskalduna!

Super-euskalduna edozein euskaldun da, are egin berria bada —neroni bezala— eta, ondorioz, goxo-goxoa. ■



Liderrak nola baliatu erabileran eragin dezaten

EraLan proiektua Soziolinguistika Klusterrak jarri zuen abian 2006an. Gaur egun, hamaika erakundek osatzen dute egitasmoa. Lan munduko erakundeetan (pribatu eta publiko), euskalduntze bidea nola eragin aztertzen eta probatzen dute, hizkuntza lidergoaren bidez. Honelako galderak dauzkate esku artean: Nolako ezagutza soziolinguistikoa beharko luke euskara teknikariak udaleko lankide eta politikariengan lidergotik eragin ahal izateko? Zergatik da inportantea alkateak edo enpresaburuak euskaraz egitea?

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

HAS GAITEZEN EraLan proiektua adibide baten bidez sakontzen. Izaskun enpresa pribatu bateko zuzendaria da; euskaltzalea, ikas-tolako umea, eta sarri aritzen da euskaraz egunerokoan. Lantokiko batzar orokorrean beti gaztelaniaz egiten du. Inoiz ez da euskaraz egin batzarretan eta berak ere ez du sekula aldaketarik proposatu. Bada, Izaskun bere lan esparruan liderra da, enpresako nagusia delako. Hizkuntz lider izan liteke horretarako prestatuko balitz. EraLanen funtsa da, lider sozial horiei tresnak ematea linguistikoki ikuspegi kritikoa izan dezaten, lan giro horretan hizkuntza ohiturekin gertatzen denaz jabetu daitezen. Jabekuntzaren ondoren etorriko da eraldaketa. Halako lanke-tarik gabe, beti bezala segiko dute, gaztelaniaz jardungo dute batzarretan. EraLan proiektuak bi adarrak uztartzen ditu, teoria eta praktika. Hizkuntz lidergoa zer den hausnartzen ari dira, eta era berean, administrazioako eta enpresa pri-

batuetako euskalduntze prozesuetan zuzeneko esku-hartzeak egin dituzte. Udaleko, diputazioko edo enpresako errealitateak ikusi dituzte, eta besteak beste, agintari politikoekin, euskara teknikariekin eta administrazioako sailburuekin egin dute lan.

Subordinazioari aurre egiteko liderrak

Lidergoak mila adiera ditu. EraLanek aukeratu duen adiera eraldaketarekin dago oso lotua. Hizkuntza komunitatea bezala euskaldun norbanakoa, subordinazio edo minorizazio egoeran bizi da. Lidergoaren bidez, eraldaketa bultzatzea da helburua. Nahiz eta hiztun gisa subordinazio egoeran egon, edonork du zerbait aldatzeko ahalmena. Aldaketan murgiltzeko, premia sentitu behar du. Hortaz gain, tresnak behar ditu aldaketa gauzatzeko. Enpresaburuak, euskararen aldeko jarrera izanik, batzar orokorretan euskaraz egiteak duen garrantziaz jabetu behar



Lidergoa autoritatearekin lotu daiteke, baina EraLan proiektuak bestelako adiera eman dio. Lider eraldatzaileak kontzeptua landu du.

Markel Olano, Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkidea

«Liderra izango zara baldin eta etsenplu ona ematen baduzu»

Olano Gipuzkoako Batzar Nagusietan EAJ taldearen bozeramailea da. Aurreko legealdian Foru Aldundiko diputatu nagusi izan zen eta orduan ezagutu zuen EraLan proiektua, parte hartu baitzuen.

Zer garrantzi dauka diputatua edo batzarkidea euskaraz aritzeak?

Bi sektore nagusi daude; bat etxera begirakoa. Ardura instituzionala baldin badaukazu, nik aurreko legealdian neukan bezala, talde politikoa eta funtzionario taldea dauzkazu. Ez dugu ahaztu behar Gipuzkoako Foru Aldundiak 2.000 langile dauzkala. Euskararen erabilera indartzeko, horiei begira zuk eragin dezakezu.

Bigarren sektorea komunikazio publikoarena da, nola aritzen zaren euskaraz gizarteari begira. Ez dira euskararen inguruko hitz politikak bakarrik, ideiak, baizik eta praxia, eguneroko dinamika. Daukazu arduraren arabera, eragina oso garrantzitsua izan daiteke.

Nola eragin dezake agintari politikoak?

Euskal politikagintzan gertatu izan zaigu funtzionario taldea, udalean edo erakunde handiagokoa, euskalduna izatea eta arduradun politikoarengatik eguneroko jarduna gaztelaniaz egitea. Izan daiteke politikariak ez daukalako euskaraz erraztasunik, euskaraz egiteko ohiturarik ez daukalako... Alegia, eduki dezakezu esparru bat ia euskalduna, baina erdaraz funtzionatzen duena, inertziaz. Arduradun politikoa batek hori puskatzeko eragin dezake. Kontrakoa ere egin dezake.

Zer gogoratzen duzu EraLanetik?

Perfil diferentetako jendea biltzen zen eta bakoitzak bere ekarpena egiten zuen, hausnarketa partekatua zen. Euskalduntzea ez da publikoari begira egin beharreko gauza bakarrik, norberak administrazioako eguneroko lanean egin dezake. Euskalduntzea martxan jartzeko orduan irizpide politikoa inportantea da, baina arduradun politikoak ezin du bere kasa asko egin.

Inertziak puskatu beharraz hitz egin duzu eta norberaren kontzientziaren indarrak.

Bikoteak umearen aurrean erdaraz hitz egiten baldin badu, ezin dio esan euskaraz hitz egiteko, ez da sinisgarria. Lehenengo obligazioa da euskara hizkuntza nagusi moduan erabiltzea zure esparru zuzenean, eta

zirkuluak zabaltzen doazen neurrian, zure lehenengo hitza euskaraz egitea. Horrek euskalduntzea dakar, inertzia aldatzea. Azkenean, administrazioan eta esparru guztietan harreman pertsonala dago eta harreman hori euskalduntzea oso inportantea da. Dena dela, ez da aski. Dinamika administrazioa ere hor dago eta erdaraz egiteko ohitura badago...

Eman iezaguzu adibideren bat.

Oker ez banago euskara hutsean funtzionatu zuen lehenengo diputatu kontseilua izan ginen. Horretarako gaitasuna geneukan. Batek ez zuen euskaraz egiten, baina ulertu bai. Bada, hark gaztelaniaz egiten zuen, baina beste guztion hizkuntza baldintzatu gabe. Inertzia baten haustura izan zen, eta ekarpena. Horrek ez dakar erabateko aldatzea, baina urrats garrantzitsua da aldatzea eman dadin.

Diskurtso aldetik nola zabiltzate administrazioako agintariak eta langileak?

Foru Aldundiaren barruan adibidez, euskararekiko ardura, diskurtsoa eta sentsibilitatea arduradun politiko batzuek zeukaten, eta gainontzeko guztiek ez zuten bere egiten ardura hori. Ez zegoen transbertsalitatearik. Nahi baduzu, funtzionamendua bertikala

zen, ez horizontala. Arduradun bat zegoen eta hizkuntzari lotutako legedia zeukan administrazioan martxan jartzeko. Mundu osoaren kontra borroka egitea bezala da, besteek ez dutelako bereganatzen ardura. Gero, transbertsalitatearen kontzeptua barneratu genuen eta hainbat printzipio erakundearen egi-

turan transbertsal bihurtu ziren, hala nola, genero berdintasuna, jasangarritasuna eta euskara.

Liderra eta nagusia ez direla gauza bera diozu.

Niretzat lidergoak ez dauka ikuspegi autoritarioa: nik agindu eta besteak obeditu. Lidergoa konfiantzan oinarritzen da, eta adimen emozionalean. Lan giro egokia edukitzen jakin behar duzu, harreman ona izaten. Euskararen erabilera ez da agintzen, liderra izango zara baldin eta etsenplu ona ematen baduzu. Liderra eta nagusia ez dira kontzeptu bera.

Hedabideetan nola jokatu behar du liderrak?

Galdera inportantea eta zaila da, urte piloan obsesio-natu nau gai horrek. Arlo politikoan, euskaldun gare-

“Ez dira euskararen inguruko hitz politikak bakarrik, ideiak, baizik eta praxia, eguneroko dinamika. Daukazu arduraren arabera, eragina oso garrantzitsua izan daiteke”

nok egiten dugun irakurketa da komunikazioa euskara hutsean egiten duzunean hautsak harrotzen direla.

Hautsak harrotu?

Adibidez, prentsurrekoan komunikazio alorreko profesionalari euskara hutsean egiten badiozu, haren-tzat eraso da, konturatzen da profesionalki zerbait falta zaiola. Askotan ez daude prest profesionaltasun falta onartzeko.

Beraz, nola jokatu?

Derrigorrean gaztelania erabiltzera eramaten zaitu horrek. Euskara hutsean egiten baduzu gaztelania hitzun profesionala etorriko zaizu eta esango dizu, “errepikatuko mesedez erdaraz?”. Euskal kazetariak arazo bera dauka, komunikazioa erdaraz egiten denean etorri eta, “emango didazu kortea euskaraz?”. Eguneroko dinamika hori da. Dena dela, katalanek edo ingelesek haien hizkuntzan egiten badute, gaztelaniazko medioetan itzuli egiten dute edo azpigitulatu. Euskaraz zergatik ez? Zergatik behartzen nau euskara ez dakienak erdaraz egitera? Profesional guztiek elebidun izan beharko lukete eta medioek jakin beharko lukete nire prentsurrekoetara euskalduna bidali behar dutela.

Baina, egoera diglosikoa aldatzen saiatzen bazara jendea haserretu egiten da. Nire asmoa euskara hutsean egitea zen, baina gero errealitatea dago. Oraingoz ez da posible euskara hutsean egitea. Orain euskarari espazio duina ematen diot; dena euskaraz, testuingurua eta kazetariarentzako interesekoa den kortea, eta gaztelaniaz kortea baino ez. Edozein kasutan, euskararen eboluzioa nabaria da, orain egiten dena ez da betelana. Hala ere, ez dakit egin beharreko guztia egin genuen aurreko legegaldian.

Sare sozialetan zabiltza.

Ez daukat argi nola funtzionatu, praxi diferenteak daude. Ezagun batek izen desberdinak dauzka eta kontu bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz. Ez zait gaizki iruditzen. Nik berriz, kontu bakarra daukat eta gaztelaniazko eta euskarazko mezuak orekatzen saia-



DANI BLANCO

Markel Olano, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusi zenean ateratako argazkian.

tzen naiz. Azken finean, eragile zara eta erdalduna den gunea euskalduntzen saia zaitezke.

Euskararen kontrako erasoak gaitzetsi izan dituzu.

Jarrera publikoa inportantea da eta Twitterren eta Facebooken bidez oso erraza daukazu. Lidl supermerkatuak etxeko buzoian astero sartzen duen publizitate liburuxkarekin asko haserretu nintzen. Hitz bakar bat ere ez euskaraz. Publikoki esan nuen ni ez nintzela joango Lidlara eroatera, euskararen trataera aldatzen ez bazuten.

Beste batean, Kontxako Banderaren bueltan, Radio Nacionaleko Ramon Trecet esatariak tweet bat sartu zuen esanez, ikaragarri poztu zela Donibaneako patroia erdaraz hizketan entzun zuelako, aurrerapauso zela. Esaldi hura arbuiazen nuela adierazi nuen Twitterrez.

KANPORAKETAK

B D G R

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2012

www.bizkaikotxapelketa.biz

IBON AJURIA
ANDER SALABERRIA
ENAUT URUBURU
GORKA OSTOLAZA
ITXASO PAIA
XABAT GALLETEBEITIA

BALMASEDA
Urriaren 14an, domeka
17:30ean
Klaret Antzokian








EraLan proiektuaz

EraLan ikerketa-proiektua da. Soziolinguistika Klusterra da sustatzailea, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateak zuzentzen du, eta hainbat erakunderen arteko lankidetzaren bitartez gauzatzen da. Lan-arloan ematen den hizkuntzen erabilera da proiektuaren aztergai nagusia, eta ikerketa aplikatua eta haren gaineko hausnarketak elkarrekin egiten dituzte partaideek.

Proiektua 2006an jarri zuten abian eta 2012-2013 urteetan hirugarren fasea landuko dute. Hiru azpi-talde ari dira hainbat gai jorratzen: a) hizkuntz lidergoa administrazioko erabilera planak berritzeko; b) hizkuntz lidergoa prentsaurreko eta agerpen publikoetan c) euskararen aldeko portaera aktiboak erakundeen kulturaren argitan.

Ondorengo erakundeek, EraLaneko parte-hartzaileak izateaz gain, euren etxeetan egin dituzte hizkuntza lidergoari lotutako interbentzioak.

- Bermeo, Eibar, Zumaia, Portugalete, Lasarte-Oria eta Donostiako udalak, eta Bortzirietako mankomunitatea.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Kutxabank.
- Bai Euskarari Ziurtagiri elkarte.
- Bertsozale Elkartea.
- Kontseilua.
- Topagunea.
- Gasteizko Legebiltzarra.
- Emun / Elhuyar / Aek-Ahize / Artez aholkularitzak.

du. Ondoren bigarren pausoa dator, nola lortu betiko ohiturak aldatzea?

Nekane Goikoetxea Sorguneak ikertegiko (HUHEZI, Mondragon Unibertsitatea) kidea da eta EraLaneko zuzendaria. Prozesuaren amaierako emaitzari begiratzea baino, ikerketa-ekintza prozesuan eragindako aldaketak aztertzea garrantzitsuagoa dela adierazi digu. Ez da batere erraza betiketutako ohiturak aldatzea. Eraldatzaileari, hizkuntz liderrari, soziolinguistikaren ikuspegitik begirada kritikoa, diskurtso landua, edukitzea eskatzen dio.

Azken aldian, Iñaki Martinez de Luna soziolinguista arabarra proposatzen ari den *framing* (edo marko) berriaren beharraz hitz egin digu Goikoetxeak. Kontua da zein markotan kokatzen dugun hizkuntzaren arazoa edo egoera. Marko horren arabera jarduten dugu gero. Goikoetxearen ustez, orain erabiltzen dugun markoa sarri, hegemonikoak diren hizkuntza espantsiboen ikuspegitik eraikitakoa da, bestearen markotik abiatu eta sortzen dugu gure markoa, gure diskurtsoa, gure erreakzioa. Erresistentzia ariketa litzateke, adibidez, hizkuntza hegemonikoarekiko harremanak berrinterpretatzea.

Nekane Goikoetxearen iritziz, hankamotz gabiltza diskurtso eta argumentazioetan: “Askotan diskurtso mota berarekin goaz eus-

Nekane Goikoetxearen ustez, orain erabiltzen dugun markoa sarri, hegemonikoak diren hizkuntza espantsiboen ikuspegitik eraikitakoa da, bestearen markotik abiatu eta sortzen dugu gure diskurtsoa, gure erreakzioa

kalduntze bidea hartu duten edo hartuko duten erakundeetara. Baina, bakoitzak (izan enpresa, udala edo alderdi politikoa) bere markoa dauka eta hor kokatzen du hizkuntza. Euskararen profesionalaren lana da bakoitzari doituako diskurtsoak lantzea. Sarri diskurtso sinpleekin goaz, ez gara argumentatzen hasten, ez dugu bestearen ikuspegia integratzen. Diskurtso lanketaren premian gaude, euskararen profesionalak begirada kritikoa landu behar du, diskurtsoak aberastu, botere harremanak eta eraldaketa estrategiak maneiatzeko trebetasuna izan behar du. Teknikariari lan zorrotza eskatzen diogu”.

Diskurtso landu gabeaz ari garela, eta euskaratik teknikariengandik agintari politikoen eremura jauzi eginda, lehen lerroko agintari baten adibidea eman digu Goikoetxeak. Agintariak ibilbide eredugarria egin zuen: euskara ikasi zuen, lotsarik gabe erabiltzen du, gaztelaniaz egindako harreman ugari euskaldundu ditu. Alabaina, halako aldaketa zergatik egin duen galdetuz gero kosta egiten zaio praktika horren gaineko gogoeta soziolinguistikoa egitea, eta erantzuna honakoa da: “Euskara maite dudalako, herria maite dudalako”. Goikoetxearen ustez, politikariak euskara ikasi du, baina ez du lehen mailako lider bati dagokion lanketa soziolinguistikorik egin, ez dauka diskurtso landurik, eta nabari da bere ibilbide profesional horretan euskarak (ez erabilerak, diskurtsoak baizik) ez duela zentraltasunik izan. “Badakigu —dio Goikoetxeak—, agintari askok traje on bati ematen dioten adinako garrantzia ematen diotela euskarari, baina kasu asko bestelakoak dira, benetako hizkuntz liderrak dira. Hala ere, kamuts dute ikuspegi soziolinguistikoa. Horrek lotura du, dudarik gabe, soziolinguistikak duen egituratze faltarekin. Harrigarria da 50 urtetan halako ibilbidea egin duen komunitatearen kasuan”.

Guardiola, icebergaren erpina

Katalanaren normalizazioan Pep Guardiola Futbol Club Barcelonako entrenatzaile ohiak jarrera eredugarria erakutsi izan du; hizkuntz liderra zer den ulertzeko adibide baliagarria da.



Idurre Bideguren, Bermeoko alkatea

«Lider eraldatzaile izatera iristeko gaitasun asko izan behar dituzu»

Bermeoko Udalean EraLan proiektua gauzatzen ari dira. Idurre Bideguren aurreko legegintzaldian zinegotzi izan zen eta orain alkate da. Egitasmoa zuzenezuzenean bizi ez badu ere, badaki zertaz ari den.

Alkatea zara, lider beraz. Hizkuntz liderra izan zaitezke udalean bertan, eta herriari begira ere bai.

Lider eraldatzailearen kontua oso kontzeptu konplikatu da. Horra iristeko gaitasun asko izan behar dituzu. Lehenengo galdera: Lider sentitzen al zara? Ez, momentuz ni ez naiz lider sentitzen, nahiz eta rol bat betetzen dudana eta lidergo maila bat badaukadan. Liderrak gaitasun asko eduki behar ditu: komunikatzeko gaitasuna, motibatzea... Horiak lantzen ari gara, baina bada beste gauza bat oso garrantzitsua: udal honen nondik norakoa. Lidergoaren gaian guk [udal politikariak] baino gehiago dakite langileek. Guk ezagutza hori eskuratu behar dugu lehenengo. Bestalde, eredu izan behar dugu eta horretarako hizkuntza ohitura batzuk erakutsi behar ditugu.

Ez da beraz, barneratzeko kontzeptu erraza.

Ez hizkuntz lidergoa, ezta lidergoa orokorrean ere. Lider izateko moduak daude. Modu bat izan daiteke “boterean gaude eta hemen guk esaten dugun moduan egiten da lan, euskaraz egiten dugu lan”. Beste modu bat izan daiteke euskaraz natural egitea, normaltasunera jotzea, inor erasotua sentiarazi gabe.

Zinegotzi lau urtez eta orain alkate. Euskarari dagokionez, zer aurkitu duzu udalean?

Sorpresa izan da. Oso erakunde euskalduna topatu dut. Ez luke sorpresa izan beharko, baina adibidez Bizkaian telefonoaren bestaldean euskaldunak aurkitzea ez da beti hain erraza eta dokumentuak euskaraz izatea ere ez. Bermeoko Udalean zati handi bat euskaraz egiten da, ahozkoan eta idatzizkoan; batzarrak, prentsaurrekoak. Ni natural nabil euskaraz eta taldea ere bai.

Lidergoaren gaia sakon landu dutenek esan dizute ordea, natural euskaraz aritze hori ez dela hain naturala.

Bai, hala adierazi digute. Guri, udalean euskaraz egitea naturala iruditu arren, ez da hain naturala. Udaleran nor datorren, erabilera ildo bat edo beste bat marka dezake, boterean dagoenaren arabera langileei eskutatuko euskara maila txikiagoa edo handiagoa izango da. Dena dela, batzuetan hizkuntzaren erabileran markatzen den lerroa ez da argia, erabakitakoa, baizik eta asko pentsatu gabekoa.

Zuri gertatzen zaizu ohituraz gaztelaniaz aritzen direnek zurekin euskaraz egitea, alkatea zarelako?

Niretzako naturala zen, adibidez, halakorekin euskaraz egitea. Baina gero konturatu naiz beste jendeagaz gaztelaniaz egiten dutela. Langileek ikusten bazaituzte zure inguruan euskaraz zabiltzala, inportantzia puntua ematen diote. Hasieran ez nintzen gauza horietaz konturatzen.

Nekane Goikoetxeari galdetu diogu atzo arte ia egunero hedabideetan ikusi dugun entrenatzailearen hizkuntza jarreraz: “Icebergaren erpina da. Harengan ikusi dugu eraldaketa potentia egiteko bidea. Bi gauzek egiten dute bat. Batetik, Guardiola bera fenomeno bat da, eta bestetik, klubak berak seguru asko hizkuntza ikuspegia landua dauka, bere botere sinbolikoaren jakitun da. Komunikabideen sistema osoa eraldatzeko indarra izan du. Katalanari zenbait forotan orain arte eduki ez duen estatusa eman dio. Erresistentziak izan ditu botere elebakarraren aldetik eta oso modu eraldatzailean (jasoan, sofistikatuan) erantzun ditu”. Liderra, oso indartsua, baina berriro azpimarratu digu egituraren, kasu honetan futbol taldearen, egitekoa. Alegia, euskalduntze bidean nekez emango ditu pausoak euskara teknikariak, enpresako zuzendariak edo politikariak, haren etxean euskara erdigunean ez badago.

Administrazioko euskalduntze planen gainean kontraesana ikusten du Goikoetxeak: “Gure administrazioan egin den euskalduntze bidean kanpo geratu izan dira agintariak, ez die plangintzaldiek ia eragin. Oraingo krisi instituzionalak agerian jartzen ditu halako kontraesanak. Konparazio baterako, posible al litzateke erretzeko debekua langileei jartzea eta agintariei ez? Lider sozial formalen garrantzia handia da”.

EraLanek administrazioan eta enpresa munduan egin duen lanaz aritu gara artikulu honetan, baina hedabideen eremu korapilatsua ere ari dira lantzen. Jendaurreko agerpenetan eta prentsaurrekoetan ahalik eta euskara gehien erabiltzeko zailtasunei nola aurre egin aztertzen ari dira. Adibidez, nola jokatu dezaake erakunde bateko komunikazio arduradunak hedabideetara jo behar duenean? Euskaraz egitea erabaki eta erresistentziak aurkitzen

Zer lantzen da lidergoan sakontzeko bileretan?

Aurreko saioetan alkatea eta zazpi bat zinegotzi elkar-zen ziren. Haien kezkek agertzen zituzten, hizkuntza portaerak aztertu. Adibidez, euskaraz natural egiten duzu bileretan eta halako batean gaztelaniaz egiteko eskatu dizute. Nola jokatu?

Adibide zehatzen bat eman al dezakezu?

Etorkinen gaia lantzeko Ikuspegi erakundetik [Immigrazio Behatokia] hizlaria ekarri genuen. Hark euskaraz prestatu zuen hitzaldia eta guk ere bai aurkezpena. Saioa bukatzerako gaztelaniaz ari ginen denok. Hainbat jende etorri zen, batzuk etorkinak. Prestatu barik joan ginen, euskaraz egiteko prestatuta joan ginen. Aurreikusi egin behar da aurkituko duzun panorama. Euskaldunoi gertatzen zaiguna da gaztelaniaz badakigula, baita beste hizkuntzak batzuk ere, eta gaztelaniaz egiteko eskatzen zaigunean egin egiten dugula.

Hedabideetan nola egin ere aurreikusi behar duzue.

Prentsaurrekoak euskaraz egiten ditugu, batzuetan prentsa oharra egiten da gaztelaniaz. ETBn gaztelaniazko kortinga eskatzen dute eta eztabaida izan dugu. Orain hasi dira euskarazko esanak azpiztitulaturata atertzen. Baina euskaraz egiten baduzu ez zaituzte telebistan ateratzen edo zati bat baino ez, ez da gauza bera. Gaztelaniaz ematen badiotzu dena prest daukate, lan handirik egin gabe. Zuk hor atera nahi baduzu, igoal gaztelaniaz egin behar duzu. Eztabaidatu egin behar dira horrelakoak.

Udaletik kanpora ere liderak aurkitu behar direla diozu.

Kirol munduan adibidez. Urdaibaiko arraunlariei behin baino gehiagotan esan diet, Bermeoko traine-rua izanda eta patroia euskalduna, zergatik esaten duen *un-dos-tres-acaba* eta ez *bat-bi-hiru-akaba*. Entrena-



Urrian abiatuko dute berriz EraLan proiektua Bermeoko Udalean. Idurre Bidegurenak alkate moduan hartuko du parte.

tzaileari ere esan diot, eta hark: “galegoak ere badaude...”, eta euskaldunak ere bai! Hain zaila al da *bat-bi-hiru-akaba* ikastea? Gaztetxoentzat klabea da haien gustuko esparruan, kirolean, erreferentzia euskaldunak izatea.

ARGIA

baditu nola erantzungo die horiei? Zer dago erresistentzia horien atzean? Zein lidertza modu egon liteke euskal kazetarien artean?

Azken finean, hedabideak lider sozialen

eta herritarren arteko galbahe izaten dira, eta haien leihotik erakitzen dira euskara lider eredu-garriak eta ez hain eredu-garriak. ■



Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

IRKUS ROBLES-ARANGIZ

«Artearen industria eta sailkapen guztietatik kanpo nago»

Gustu bizia eta bizi gustua elkartzen direnean...

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Gaizka Iroz

Ez zinen une egokienean sortu.

Jaio eta zazpi ordura izebak eraman behar izan ninduen Bilbo bonbardatzen ari zirelako. Anaia zaharrena bihotzetik eri zen, eta biziko bazen, Bilbotik ihes egin beste erremediorik ez zuela esan zion medikuak amari. Ordurako Bilbotik kanpo zebilen aita, eta halaxe ateraz zen ama etxetik, dokumenturik hartu gabe, hilabeteko kontua izango zelakoan. Itzultzerako 15 urte pasa ziren ordea. Hala, Beskoitzen hazia naiz ni. 5 urterekin hasi nintzen eskolan, eta orain hitzetik hortzera dabilen bullying-a gure larruan ezagutu genuen. Komunistak ginela zabaldu zen, gaiztoak, eta “buhame beltza!” edo “*español y burrico*, tripa zaharrean bi ostiko” bezalakoak entzun behar izaten genituen. Hantxe ikasi nuen borrokan, pataskan, auto-defentsan.

Hamaika neba-arrebako sendi batek, alemanen okupazio sasoian, beste borroka mota batzuk izango zituen, ala?

Autobus bat zegoen herrian, baina autorik inon ez. Orgen karrankek betetzen zuten bidea, zaldiek, astoek, idiek... Gehienek bizikleta zeukaten, guk ez. 15 urte arte oinutsik ibili naiz etxean. Justu-justuko etxea zen gurea: argirik ez, ura orain kaltegarria dela dioten burdina-ur gorri-gorri hori, eta afaltzeko gaztainak eta esnea. Alabaina, gogortasun eta laztasun horretara ohiturik, jolas bezala hartzen genuen bizitza. Gose ginean sagarrak ebasten genituen, eskolatik itzultzean amak agindutako zereginei ekiten genien, eta estutasunak estutasun, ez zitzailgun umore eta irudimenik falta. Gure artean

izugarritzko giroa genuen, eta anaia Koldo zenak irakasten zizkigun dantza, kantu eta antzerkiekin gure arteko ikuskizunak muntatzeko genituen neguko afalondoak alaitzeko. Gurasoak edo arrebak irriz ikustea aski zen gure zorionerako. Hortik dator gure farandularako sena. Ez gara punta-puntakoak izan ezertan, baina maila onekoak bai, eta ez da meritu makala taxuzko ikasketak egiteko paradarik ez dugula izan kontutan hartuz.

Kontziente zinen alemanen okupazioaren edo zuen gurasoen konpromiso politikoaren esanahiaz?

6 urte nituela gure aitak Comète Sareko iheslariak etxean hartu zituen, eta guk jakin arren, ez genuen ezer esaten. Lagunak etxera jostatzera etortzen zirenean amak basora tiratzeko esaten zigun, eta disimuluan ibiltzea munduko gauzarik arruntena zen guretzat. Pentsa, zona asketik okupaturako bidean kontrolak pasatzen genituen noiznahi, eta xaxtatzen saiatzen baziren ere, ez ziguten deus ateratzen. Guk ez genien alemanei beldurrik,

NORTASUN AGIRIA

Irkus Robles-Arangiz. 1937an sortu zen Luisa Bernaola eta Manu Robles Arangizen semea, Bilbon. 11 neba-arrebako sendian zortzigarrena, Beskoitzen pasa zuen haurtzaroa, eta nerabezaroan Bilbora itzuli zen. Txinparta antzerki taldeko, Olaeta dantza konpainiako eta Soroak laukoteko kide, 1970eko hamarkadatik landa pintatzeari eman dizkio bere ordurik onenak, Euskal Herriko hiriburu guztietan, Madrilan, Mexikon edo Caracasen erakusketak egitera iritsiz.





beste begi batzuekin ikusten genituen. Herrian pelotoi iraunkorra zegoen, eta egun batez, eskolako leihoak txiki-txiki egin zituzten bi bala eskapatu zitzaizkion soldatu bati. Haur guztiak zoratu ziren, negarrak, oihiak, leihotik salto egiteko saiakerak... Gu ez ginen ernegatu ere egin. Hazparneko bidean, alemanek beraien auto blindatuetan igotzeko esaten zigutenean haiekin joaten ginen etxe ondoraino, besteak berriz, “hilen haute!” oihukatuz sasien giblean gordetzen ziren. Guretzat normaltasuna zen. Amak garbiki azaltzen zigun gauza batzuei buruz ezin ginea inorekin mintzatu eta guk kasu egiten genion, besterik ez. Guk jolas bezala bizitzeak, alta, ez du esan nahi alemanen okupa-

zioa goxoa izan zenik. Hiru edo lau aldiz etxea hustu eta mudatu behar izan genuen maniobra eremuan geundelako, eta gauzak zer diren, gerora jakin dugu errusiarrei atzemandako “Organo Stalin” izeneko armen lehen frogak gurean egin zituztela.

Joan ziren alemanak, pasa ziren urteak, eta halako batean, Bilbora itzuli zineten. Itxuraz, ez ziren farandularako sasoi onenak baina...

Bilbora heldu eta dena zen espainiakeria frankista, militarrek nonahi, zezenketak... Itogarria zen guretzat. Bilbora iristean negar egin nuen. Pentsa, Beskoitzetik nentorren, mendian lasai eta euskaraz bizitzetik, eta bat-batean Frankismoak are itogarriago egiten zuen orduko Bilbo bezalako hiri itogarria. Farandulan topatu genuen ihesbidea, eta Txinpartak antzerki taldea sortu eta Euskaltzaindiaren bulegoetan elkartzen hasi ginen. Arnasa zen guretzat, babesa. Bakoitzak ekartzen zuen bere hondar-alea: batek gidoia, besteak kantua, halakoak dantza... Nik gehienbat dekoratuak eginez eta kantatuz hartzen nuen parte. Emanaldi egunetan herrietara joaten ginen trena gure poltsikotik ordaindurik, handik aritu behar ginen lekura saski-bete traste bizkar gainean hartuta, eta behin antzezpen gunera iritsita, arditegia zelaitu, gortina batzuk jarri, eta aurrera bolie. Orduan ia ezinezkoa zen euskaraz ezer egitea, baina guk ez genuen baimenik eskatzen, egin eta kito. Izugarria zen menditik jaisten ziren artzaiak

edo herritar xumeak seko hunkituta ikustea.

Antzerkiarekin aski ez eta Olaeta dantza taldean eta Soroak laukotean ere buru-belarri murgildu zinen.

Olaetatik sortu zen Soroak. Oso nahasketa bitxia zen Olaetakoa, aberats notableen alaba-ilobak eta miserikordiako umezurtzak elkartzen zituen, izugarritzko giroa sortuz. Tartean, gitarra ongi dantzatzen zuen Txabi Villaverde zegoen, eta behin Iruñera gindozela, autobusaren atzealdean, gitarraz lagundurik kantuan hasi eta izugarri ongi sonatzen zuela jabetu ginen. Entseatzeari ekin, abesti euskaldun, aleman, frantses eta latinoamerikarrez osatutako errepertoriotxo osatu, eta

handik gutxira Bilboko txalet batean kanta-
tzera gonbidatu gintuzten. Arrakasta itzela
izan zen. Pentsa, sei kantu baizik ez geneuz-
kan, eta seiak hiruna aldiz errepikatu behar
izan genituen! Batak bestea dakarrenez, Mue-
bles El Paraisok babestutako asteroko saioa
izan genuen Radio Bilbaon hiru urtez. Jen-
deak gure erreperatorioko kantuak eskatzeko
deitzen zuen eta guk zuzenean kantatzen
genituen. Txitean-pitean, astebururo Madri-
lera joateko aukera sortu zitzaigun. Larunba-
tez hegazkinez joan, irratan eta diskoteka
batean kantatu, eta igandean gure dirutxoare-
kin itzuli. Los Panchosekin kantatu genuen,
baita Wellington hotelaren ere zinemaren sari
nagusien banaketaren kariatara. Mundu
osoan aritzeko eskari eta kontratu proposa-
menak izan genituen, baina horretarako Eus-
kal Herria uztera kondenatuak ginen, euska-
raren presentzia anitz murriztera, eta
taldearen izpiritua desitxuratzea zatekeen.
Horregatik, pixkanaka utzi egin genuen.

**Utzi aurretik, alabaina, sekulakoak eta bi
entzun behar izan zenituzten euskal kantuzale
klasikoenen ahotik.**

Gure lehen kantuak rekinto batekin, gitarra-
txo batekin, eman genituelako hasi zen ezta-
baida. Euskal kantua lurperatzen ari ginela,
gureak ez zuela izenik, herejeak
ginela... Beti gertatzen dira hala-
koak. Gure argumentua sinplea
zen: "Iparragirrek gitarra bate-
kin kantatu bazuen, guk zerga-
tik ez?". Zorionez, zuzenean
entzuten gintuen jendea txora-
txora eginda itzultzen zen etxe-
ra. Gogoan dut Galdakaoko
frontoian kantatu genuela
behin, eta sarrera guztiak saldu-
rik, munizipalak jendearen ero-
mena ezin baretuz ibili zirela.
Jendearen harrera beroak urak
bere onera ekarri zituen, eta
apurka-apurka, jendearen eska-
ria kritikarien hitz gogorrei gai-
lendu zitzairen. Hori gutxi ez eta
Mixel Labeguerie bezalako emi-
nentzia batek gure kontzertu
batetik jalgita "hau da nik egin
nahi dudana!" aldarrikatu zuen.
Erreferenteak balekotzat jotzen
zaituenean fite isiltzen dira baz-
terrak.

**Hainbeste urte dantza, kantu eta
antzerkian iraganda, nola eraba-
ki zenuen pintatzen hastea?**

Txikitan trebea nintzen marraz-
ten. Bilbora heldu eta Artes y

Oficios-en marrazketa lantzen hasi nintzen,
eta urte batzuen buruan, Firestonen sartu
nintzen marrazkilari, kartografiara jauzi egin
aitzin. Ezkondu, guraso izan, eta etxean den-
bora gehiago pasatzen nuenez, nire gauzatxo-
ak egiten hasi nintzen inongo pretentsiorik
gabe. 1972an, bi margolari ezagutu, eta eure-
kin Errioxara joaten hasi nintzen pintatu eta
eurek nola pintatzen zuten ikusi eta ikasteko

**"Amerikanismoa erraietaraino sartu digute,
eta artista batek egiten duena baino
garrantzitsuagoa da horren inguruan
diskurtsoa sortzeko duen gaitasuna"**

asmoz. 1973an zabaldu nuen nire lehen era-
kusketa eta gaur arte. Ikasi dudak ezer ez dit
eskolak irakatsi, ez dut irakaslerik izan, ikusi
dudanak irakatsi dit. Bizimoduan ikasten den
gizaldikoa naiz ni. Horregatik marrazten
ditut zaharrak mahai-bueltan kantuz edo
ferian. Hori da nik ezagutu dudana, nire bai-
tan gelditu den arrasto sentimentala. Zoraga-
rria iruditzen zait bizimodu nekeza eta gogo-
rra izan arren zein alegera ziren. Orduan

Prezio bereziak
langabeentzat

Matrikula zabalik!!! 2012-2013

Gabriel Aresti

euskaltegia eta akademia



Txikien Aresti
Niñ@s

Gazteen Aresti
Jóvenes

Helduen Aresti
Adultos

Urritik aurrera

San Bizente 2 - 4.a - Bilbo - Tel: 94 423 75 91 - bulegoa@gabrielaresti.com

www.gabrielaresti.com



jateko eta lagunartean lasai egoteko behar zen sosa, ez oporretara joateko. Badakit sasoi hori ez dela oraingoa, ene denbora pasatua dela, baina ni garai horren erreportaria naiz, eta aro horren testigantza utzi nahi dut. Nire gauzak nire estilora eginez gozatzen dut. Zergatik pintatu, bestela? Badut bizitzeko beste diru, ez dut gehiago nahi.

Barkatuko didazu baina ez zaitut artearen industria eta sailkapenetan irudikatzen.

Artearen industria eta sailkapen guztietatik kanpo nago. Ez daukat mundu horrekin zerikusirik. Nahi dudana egiten dut eta bost axola zait non kokatzen nauten. Ez dut jasaten arte munduko jende baten hitzezko

kakalarria. Koadro bat ikusita, kritikari edo dena delakoek nola arraio esan ditzakete “mundu berri baterako giltza eskaini digu” bezalako txorakeriak, artistak komuneko lapiko gainean ukandako okurrentzia marraztu besterik ez badu egin? Artista ezin kaka eginda eta kritikaria inspirazio bulkada bat dela esaten! Gaur egun, margolariek baino gehiago dakite margolariez kritikari eta ikerlariek. Artista bakoitzak dauka robot bat ondoan, gaizki sintonizatutako irratia bezala

mintzo, denoi zer pentsatu eta zer sentitu behar dugun esaten. Amerikanismoa erraie-taraino sartu digute, eta artista batek egiten duena baino garrantzitsuagoa da horren inguruan diskurtsoa sortzeko duen gaitasuna. Pentsa, aurrekoan bezero batek kontatu zidan X artistaren rodilloz pintatutako koadroa dirutza batean zegoela salgai. Behin koadro on bat pintatu duzulako edozer saldu dezakezu? %100a bikain pintatzen duten artistarik badea? Ni ez naiz horietarik, pintatzen dudanaren %10-15a oso ona da, %50a ona, eta gainontzekoa, ba... Dena den, zin dagizut askoz hobeki bizi naizela hori onartuta, etengabe ondoan robot bat edukita baino.

AZKEN HITZA

Gurasoak

"Gureztat aita, aita zen, ez Manu Robles-Arangiz. Orduan ez ginen bere dimentsio politikoaz ohartzen. Oso diziplinatua zen, gogorra, eta amak estaltzen gintuen sarri. 12 urterekin arto-bizarra erretzen hasi ginenean gezurretan harrapatzen gintuen, eta astindua eman ostean, belarretara bidaltzen gintuen lotara. Biharamunean, hantxe etortzen zitzaigun ama, lagundu eta ikastolara joateko goxatzera. Gaixo ama, lanez gainezka ibiltzen zen beti, ez zen gelditzen, ez zuen ia lorik egiten".

prestigio mota bat erdiesteko. Gobernu guztiek diote arterako diru-partida bat daukatela, eta hori hala bada, non dago nire zatia? Bueltan ez badut ezer jasoko, zergatik ez naute zergak ordaindu beharraz libratzen? Baina ez, denek ordaintzen dugu eta gutxi batzuk baikik ez dute jasotzen. Hori horrela da musikan, artean, literaturan... Batzuek munduko laguntza guztiak izan dituzte eta besteak beti izan dira baztertuak.

Alta, bazterretik ekiteko grina sumatzen dizut oraindik.

Eta nola! Marrazki zenbait egiten hasia naiz Ibañetan aurpegi batzuk agerian dituen 5.000 kiloko harritzar batean ezartzeko, "Ibañetako batailako garaileak" izenburupean. Bai, Rolland-en monumentua hantxe dago, baina inork ez dio deus euskaldunez. Horregatik, zizelkari batekin mintzatu naiz halako harritzarra non atzeman genezakeen ikusteko, eta norbaitek puskatu nahi badu dinamita beharko du. Gainontzean, ahal dudano pintatzen segitzeko asmoa dut, ene koadroen balorea handitzeko jende batek pintatzeari uztea edo hiltzea nahi duela dakidan arren. Badakizu, askorentzat artista ona artista hila da, baina ni hobeki nago bizirik eta pintatzen! ■



Amerikanismoaz ari zarela, aurtan hamabost urte betetzen ditu Bilboko Guggenheimek.

Hastapenetik uste izan dut Guggenheimen inbertitu zena inbertitu aurretik Euskal Herriarentzat eta bertako kultura eta kultur-gileentzat zer komeni zen eztabaidatu eta hausnartu behar zela. Dena ez da dirua eta ospea. Guggenheim izan zitekeen bertako errealitatea aintzat hartu eta bertako kultur mugimendua hauspotzen duen museoa, baina ez da. Betikoa, handienak nekez egiten dio kasu txikienari, sudur-puntan jartzen zaiona egiten du eta kito. Aspaldi esan zuen Oteizak Euskal Herrian ez zegoela artistak laguntzeko sistema justu eta antolaturik. Gurean, artistak erabili egin dira turismo eta



ALTZÜRÜKÜ
Urriaren 6an

Herriko gelan
17:00etan

Ortzi Murua
Ortzi Idoate
Maindi Murua
Maddi Ane Txoperena
Xan Alkhat
Egoitz Zelaia

kanporaketa A
argia





DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



EPAILEA,
EHUKO
ZUZENBIDE
IRAKASLEA

Iragana, oraina eta etorkizuna

GARAI GUZTIAK DIRA erabakigarriak. Joandakoa, oraingoa eta datorrena. Aurrea egin behar dugu, noski, baina kontua da datorren garaia non oinarritzen den edo nora begira eraikitzen dugun.

Nik ez nuke erantzun bakarra emango. Hartzen dugun ikuspuntuaren arabera izango da. Edota, hobeto esanda, hartzen dugun arloarena.

Esango nuke herritar guztion kezak eta nahiak, egun, hiru arlotan zehaztu ditzakegula: bakegintza, normalizazio politikoa, lan harremanak eta ongizatea. Ez dut gaur beste esparru soziopolitiko garrantzizkorik ikusten.

Arlo horietan zer balio du iraganak? Guztiz baztertu behar dugu ala guztiz berreskuratu eta sendotu? Zer egiten ari gara?

Ez badugu bide berririk asmatzen, sistema iraultzen, iragana ikuspegi kritikotik irakurtzen eta beste neurririk hartzen, bide honetatik jarraituz gero, hemendik hogeitertara egoera berberean aurkituko gara eta berriro ere iraganera itzuliko gara, baina, orduko iragana XIX. mendea izango da

Krisi ekonomikoa dela eta, lan harremanak eta ongizatea dira bere ondorioz nabarmenenak. Arlo honetan argi dago atzera pausoak ematen ari garela —direla—, ez dakitela aurrera egiten. Edozein arazo dela eta hartzen diren lehendabiziko neurriak iraganera itzultzeko dira: lan harremanak desregularizatzea, lan baldintzak murriztea, babes sozialak txikiagotzea... Iraganak, beraz, badu balio berezia: etorkizunari begiratu beharrean, joandako garaia aldarrikatzen eta miresten ari dira politikan eta ekonomian agintzen dutenak. Etorkizun eskasa beraz, eta hausnartetarik eza. Ez badugu bide berririk asmatzen, sistema iraultzen, iragana ikuspegi kritikotik irakurtzen eta beste neurririk hartzen, bide honetatik jarraituz gero,

hemendik hogeitertara egoera berberean aurkituko gara eta berriro ere iraganera itzuliko gara, baina, martxa honetan, orduko iragana XIX. mendea izango da.

Normalizazio politikaren arloan atzera begiratzeak ez digu aurrerapenik ekarriko. Zergatik? Iraganean —eta egun— Espainiarekin izan dugun lotura ez delako inoiz normalizatu izan. Osasun oneko gizarte batean harreman pertsonal, sozial eta politikoak borondatezkoak direlako, noski. Borondaterik gabe ez baitago askatasunik. Eta askatasunik gabe ez dagoelako sendotasunik. Noiz arte iragana izango da ispilu? Noiz arte iragana izango da harresi gaindiezina etorkizunarentzat?

Zergatik ezin da etorkizun berri bat eraiki, herritarren borondate askean oinarrituta? Nik apustu hori egiten dut; ez diot inori kalterik egiten eta inoiz egin ez didaten oinarritzko galderari erantzun egin nahi diot. Zein dira horren aurka azalduko diren “arrazoiak”? Zein oztupoak? Orain arte entzundakoak araudia aldarrikatzen du eta, beraz, iragan triste eta iluna.

Bakegintzak, aldiz, iragana behar beharrezkoa du. Zergatik? Gure sufrimendua, gure jendea eta gure sentimenduak bertan daudelako. Eta gure jardura politikoa ere bai. Norberarena. Nola eraiki talde sozial aske eta osasuntsua jasan dugun sufrimendua ahaztuz? Nola egin aurrera gertatu den guztia aztertu eta arbuiatu gabe? Nola eta zergatik onartu beharko genuke pairatu dugun mina hainbat helburu politikoak lortzeko zilegia zela entzun izana?

Denona da iragana, bai, eta denok eraman beharko dugu zama hau. Baina ezingo dugu karga hau bidean baztertu, nahiz eta horrela “erosoago” egin dezakegun aurrera. Ni prest nago motxila hori gainean eramaten jarraitzeko, baina jende gehiago bagara, denok bagara eta lepo berriak badaude, zama arinagoa izango da, eta bere banaketa, justuagoa.

Honela, seguruenik, batzuek zamarik gabe egin ahal izango dute aurrera, nahiz eta bihotza oraindik negar batean eduki. ■





Rosa M. Martín Sabarís

EHUKO IRAKASLEA ♦



INIGO AZKONA

Fracking

PRUDEN ARABAKO HERRI txiki batean jaio zen duela 68 urte. Bizitza gehiena Gasteizen eman badu ere, erretiratutakoan herrira itzuli eta han bizi da, baratza, facebook eta kartetako lagunaren artean. Hirian utzi ditu Koldo, seme zintzoa, eta Koldoren seme-alabak, Aimar eta Maider.

Koldo kazetaritzan ibili da urtetan, baina orain, komunikabide askotan lagunak eta adiskideak dituela, komunikazio-aholkularitzan eta harreman publikoe-

tan izen handi samar bilakatu da. Duela urtebete sekulako kontratua lortu du erregaiei ustiaketa eta zundaketa lanak egiten dituen enpresa batekin. Hasieran enpresa honen komunikazio-beharrak asetzea ez da zaila izan: inork ez zuen ezer argitaratzen. Baina orain zalaparta hasi da, eta gero eta nekezagoa da lankide izandakoei albisterik ez dagoela buruan sartzea.

Koldo seme zintzoa da. Ama jubilatatu zenetik ia astebururo joaten da bisitan, amama eta ilobak elkarrekin egon daitezen, eta ondo dagoelako hiriko umeek lurra, baserria eta mendia sentitzea. Larunbatero bezala, irailaren 22an ere, baserrian elkartu dira amamak prestatutako bazkariaren aitzakiarekin egun-pasa egitera.

Bazkaltzen hasi orduko hasi da dena okertzen. “Gaur *fracking*aren aurkako nazioarteko eguna da”,

“Gaur fracking-aren aurkako nazioarteko eguna da”, bota du Prudenek, ustekabean. Koldoren txistua loditzen hasi da. Maider neska galdetsua da. “Zer da frackinga, amama?”

bota du Prudenek, ustekabean. Eta Koldoren txistua loditzen hasi da. Maider neska galdetsua da. “Zer da frackinga, amama?”. Koldok ahoa zabaldu baino lehenago, azkar eta gelditu gabe erantzun du Aima-rrek: arbel-gasa dagoela herriko lurzoru guztien azpi-azpian, eta handik ateratzeko lur azpiko harriak apur-tu behar dituztela, eta hausteko ura eta sustantzia kimikoak sartuko dituztela. Horregatik deitzen dela haustura hidraulikoa edo frackinga.

Koldo mingaina eta sabaia desitsa-tsi saiatzen den bitartean, Maider berba-lapikoak hartu du hitza: zenbat litro beharko litzatekeen harkaitza hausteko, eta aurten egon den lehor-tearekin, ea nondik ekarriko duten horrenbeste ur, eta ea gero zer egin-go duten ur kutsatuarekin eta gasare-kin, eta ura eta gasa nola garraiatuko duten, herrira doan errepidea hain estua bada...

“Hori diot nik, hori...” laburbildu du Prudenek.

“Zer da garrantzitsuagoa, aita, ura ala gasa?”. Komunera joan behar duela iragarri du Koldok. Atera denean, amama eta ilobak prest daude herrian emango den hitzaldira joateko. Frackingaren aurka. “Urriaren 6an zue-nan bazkalduko dugu, eta bazkalostean manifestaziora!” amaitu du amama Pru-denek. ■



DANI BLANCO



Amets
Arzallus



BERTSOLARIA

Amets

EUSKARAREN BIDEAK baditu zenbait sigi-saga. Hernaniko baserri bateko amonak inor haizea hartzera bidali behar bazuen “joan hadi Lekeition barrena!” esaten omen zion. Esaerak badu bere grazia, eta arrazoi parte-a, nahiz eta lekeitiar batek antzarrak ferratzera bidaliko lukeen hori asmatu zuena.

Badu harako bide horrek Tom Simpson-en azken pedalkaden antza. Nik Etxeba-rriko mutiko bat ikusi izan dut, laranja-jantzirik eta bere burua ongi zukutua, Lekeitioko bide horretan barrena, entrena-tzen, bizikleta baten gainean. Ez da berriz

gertatuko. Ez behintzat kolore horretan. Zuntz optiko berria ez da nonbait Etxeba-rriko zokoraino heltzen, edo nahiago dute Asiako merkatua, edo nik dakit ba zergatik, Lekeition barrena bidali dute mutila. Ez du berak hautsik harrotuko, ohitua dago bes-teen esanetara isil-isilik ibiltzen. Lagunen-gatik hesteak bota izan dituen mutila. Hel-mugari baino garrantzia gehiago eman izan dio beti bideari.

Ez dira nonbait oso modan dauden baloreak. ■





Estitxu Ugarte

◆ HIRU SINDIKATUA

Errepideen finantzaketaz bi hitz

AZKEN URTEETAN Hego Euskal Herrian eta bereziki Gipuzkoan eta Bizkaian bidesarien inguruko benetako debatea desbideratzeko asmoarekin argudio sami ekologistak eta gezurra borobilak erabili dituzte, besteak beste, foru aldundiek eta zenbait alderdi politikok herritarrak bidesariak ordaindu behar ditugula justifikatzeko eta gure herritik igarotzen diren milaka tona merkantziek eragiten duten ingurumen kostua eta kostu sozialaren arduraduna garraiolaria dela sinestarazteko.

Haatik, Hiru garraiolarien sindikatuak sekulako ahalegina egin du bidesari berriak ezartzearen alde erabilitako aitzaki merkeak desmuntatzeko, merkantzien garraioa zerbitzu publikoa dela argitzeko, eta finean bidesarien helburu nagusia eta bakarra instituzioen kutxa arazoak konpontzea dela frogatzeko.

Azkenean hala dela aitortu behar izan dute hitzez edo ekintzez Gipuzkoako zein Bizkaiko diputazioek. Gipuzkoan Bidegik duen milioiko zorra N-1ean bidesari berri baten bidez konpontzeko egitasmoa aztertzen ari dira, Bizkaian berriz hasiera-hasieratik Bilboko saihesbidearen obra erraldoia ordaintzeko bidesariak inposatzeko beste aukerarik ez zegoela argitu zuten.

Bidesaria, beraz, azpiegiturak finantzatzeko, mantentzeko eta errepide gehiago eraiki-

tzeko herritarroi ezartzen zai-
gun zeharkako zerga mota bat
da, berrordainketa.

Argi dago. Bidesarien deba-
tea gure errepideen finantza-
ketari buruzko eztabaida hutsa
da eta ez du zerikusirik ingu-
rumena babestearekin, zirku-
lazio arazoak konpontzeare-
kin eta are gutxiago
merkantzien mugimenduak
ordenatzearekin, horiek ez
baitira bidesariak ezarriz kon-
ponduko diren arazoak.

Beraz, errepideen finantzaketa
gure herriko politika fiskala-
ren eta gure fiskalitate erdua-
ren inguruko eztabaidaren
parte bat izan beharko litzate-
ke osasunaren, hezkuntzaren
edo bestelako zerbitzu publi-
koen finantzaketarekin gerta-
tzen den bezala.

Izan ere, zorionez edo zori-
tzarrez errepideak eta azpiegi-
turak ondare edo kalte publi-
koa dira, herritar guztiok
zuzenean edo zeharka errep-
ideak erabiltzen ditugu edo
errepideak behar ditugu, eta
horrenbestez gizarte osoak
asumitu beharko du errep-
ideen ordainketa.

Hori hala izanik, orain fun-
tsezko eztabaida da fiskalitate
zuzena, progresiboa eta bidez-
koaren bitartez finantzatzen
ditugun gure errepideak edo
bidesaria bezalako zerga dis-
kriminatzailerik, injustua eta ez pro-
gresiboa inposatuz
eta zabalduz egiten
dugun. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

**Miren
Amuriza
Plaza**



XDZ

Doinua: Munduan libre bizi izateko.

Kode penal berria

Gatazka baten legedia da
estatuen motorea,
zigortu eta zigortzaileen
bereizle paregabea.
Gizalegezko deritzogunak
izan ohi du ohorea,
edonorentzat gordea.
Euskal Herrian ordea,
epaituaren neurriari aldatuz
arauaren kolorea,
zigor kodeak ezkututzen du
mendekuaren kodea.

Bizi osoa espetxe baten
sartuta pasa beharrak,
itzali egin litzake hala
dirauten ororen garrak.
Lege berriak saldu dituzte
baina dira kontu zaharrak;
governuen asmo txarrak,
ta mugak jarri beharrak.
Euskal presoan kondenak dira
paradoxiko samarrak,
krisialdian murrizketarik
izan ez duten bakarrak!

Baina Europa gobernuari
errepikatzen ari da,
Parot doktrina behar duela
lehen bait lehen erretira,
eta gaixorik dauden presoak
aske uzteko sikira.
Raxoik bizarrari tira,
Gallardonek mus partida...
Martxa honetan nahi duten dena
egiten ohituko dira.
Noiz zigortuko ote ditugu
eurak hormara begira? ■





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



BEZAREN IGOERA KULTURAN

Arte biziak luxu bilakatuko dituen neurria

Irailarekin batera, BEZaren igoera heldu zen arte bizietara, hau da arte eszenikoetara, zuzeneko musika saioetara eta zinemara. %8tik %21erako igoera ezarrita, kulturaren gaineko euroguneko zergarik garestiena inposatu dio Espainiako Gobernuak Hego Euskal Herriari. Kulturaren diharduten sektoreek –krisiak ondo gaztigatuta zituen dagoeneko– gogor kritikatu dute neurria. Mirariak besterik ez ditzake salba.

| MYRIAM GARZIA |

ABUZTUAN, Espainiako Gobernuak arte biziari aplikatzen zaien zergari 13 puntuko igoera ezarriko ziola iragarri zuenean, gogotik haserretu ziren kultur sektoreetako eragileak. Espainiako Kultur Industriako enpresen elkarteak (UAEICE) azterketa bat eman zuen argitara, neurri horren ondorioak agertzeko: 4.226 lanpostu zuzen galtzeko zorian, kultur enpresen %20 itxear eta guztira 43 milioi ikusle gutxiago. Etorkizuna ilun ageri da, beraz, dagoeneko ahuleziak jota dagoen sektorean. Krisia eta laguntza publikoen etengabeko murrizketa jasan ditu lehenagotik.

Egun, sektore honek 500.000 langile zuzen ditu Espainiako estatuan, eta barne produktu gordinaren %3,2 da. Kultur ekimen hauei ezarri zaien BEZa, %8tik %21eko igoera sonatua, euroguneko kulturaren gaineko zergarik altuena da, eta ikusle kopuruari ez ezik, kultur kontsumoari ere eragingo dio. Kultur eragileek diotenez, neurria ez da uste bezain errentagarria izango, zergari esker egingo den diru-bilketa eta sektore honetan gertatuko diren galerak parekatzen badira behintzat.

Euskal Herrira etorrita, kultur arloko elkarte zenbaitek uztailaren amaieran egin zuen agerraldia medioen aurrean, BEZaren igoera iragarri bezain azkar. Orduan, Eusko Jaurlaritzako Kultur sailburuorde Antonio Riverak, “eraso” gisa definitu zuen Espainiako Gobernuak hartutako neurria, eta erantsi, datorren urtean arlo honetako enpresen fakturazioa %78 jaitsiko zela. Halaber, lanpostuen %66 kolokan jarriko zirela.



Ferran Martinek,
lainformacion.com
webgunean eginiko
satira.

Arte eszenikoak, soka

Luze eztabaidatu da BEZaren igoera honek eragingo duenaz. Kultur eragileek bilerak egin dituzte alderdi politikoekin, eta desadostasun handiak aurkitu dituzte, ordezkaritza politikoaren artean ez ezik, baita bestela ere. Dirudienez, tunelaren amaiera ez da ikusten. Areago, tunela bera iluntzen ari da. Amaia Ibañez Eskenako kudeatzailea da –Euskadiko Ekoizpen Eszenikoaren Enpresa Elkartuak–. Bere ustez, “oso kezkarria da erabakia, eta eragin ezkorra izango du gure jardura kulturalen, bestela ere nahiko ahula baitzen egoera”. Ibañezek azaldu digunez, “Sarrearen prezio igoerak antzerkirako sarbide sozialari eragiten dio lehenik eta behin. Kontsumoak behera egingo du, eta ondorioz, sek-




Amaia Ibañez Eskenako kudeatzailearen ustez, erabakiak eragin ezkorra izango du gure kultur jardueran.


tore honetan lan egiten duten pertsonen kopurua murriztuko da”. Euroguneko tasa handiena aplikatu dela ikusirik, Eskenako kudeatzaileak garbi du Artearekiko eta Kulturarekiko erakutsi den jarrera: “igoera honek agerian uzten du Espainiako Gobernuak arlo honekiko sentitzen duen erdeinua. Portugalen eta Herbehereetan ere egundoko igoera aplikatu zitzaizkien jardun hauei, eta azkenean zerga murriztu egin behar izan zuten”. Ibañezen ustez, “neurri horrek oso ondorio larriak izan zituelako. Espero dugu Espainiako Gobernuak atzera egingo duela, erabakia bertan behera utziko duela, eta kulturari zerga murrizta ezarriko diola, inguruko herrialdeetan egin bezala”.

Euskal antzerkigintzan oraindik eta larriagoa izango da pairamena, Ibañezen ustez, “kultura minorizatua den heinean”. Ezegonkortasuna, lanpostuen galera, berez nahiko larri dauden enpresen itxiera, eta, okerrean, kultura luxuzko ondasun bihurtzea, elitearen produktu bilakatzea, horietatik arriskurik aipagarrienak. “Gogorazi behar zaie politikariei kultura ez dela entretenimendurako edo aisialdirako kontua. Gizarte gara dadin beharrezko tresna dela, gizarte jasagarri eta libre eraikitzeko beharrezkoa”.

Bilboko Arriaga antzokiak, bidegurutzean jarri eta BEZaren igoeraren zati bat beregain hartzea erabaki du. Ignacio Malaina bertako zuzendari kudeatzaileak argitu duenez, “ez genuen nahi sarreran prezioagatik kontsumoak behera egitea. Funtsezkoa iruditzen zaigu kultura denontzat erakargarria eta eskuragarria izatea, ez izatea luxuzkoa”. Amaia Ibañezi bezala, Ignacio Malainari ere ez zaio iruditzen igoerak eraginkortasun fiskalik izango duenik, igoera horren lehen ondorioa, hain



J.M. Moraren bineta. www.lainformacion.com



Carlos Juarez Euskal Zine Ekoizleen elkarteko presidentearen ustez, neurri honek elitista bihurtu dezake zinema.

zuzen, hori izango baita, kontsumoaren jaitiera. Horregatik, “erabakia okerra eta injustoa” iruditzen zaio. Gauzak honela, Arriaga antzokiak zergaren zati bat bere gain hartuta, ez da horrenbestekoa publikoari ordainduaraziko zaiona. Batez beste, %5-6 garestituko dira Arriaga Antzokiko sarrerak. “Gure publikoaren alde pentsatu eta kultura molde eskuragarri baten alde egin nahi izan dugu, gure kultur kalitatea mantenduta gainera”.

Arte eszenikoak bazter utzi gabe, Bilboko 6 Pabilioira jo dugu. Ekimen pribatua baina izaera irekia du areto honek, arte eszenikoetako eragileek eurek bultzatzen dute bertako martxa. Irene Bau 6 Pabilioiko bazkide da, eta baita aktorea ere. “Akats tamalgarria iruditzen zait erabakia —dio aktoreak—. Atzera botako dutela espero dut. Ez da posible euroguneko zergarik garestiena izatea, eta igoera hori zuzen-zuzenean ikusleak ordaindu behar izatea”. Bestalde, kultur industriaren kalterako izango dela iruditzen zaio Bauri, “batzuek sokan bizi behar beti, kolokan”.

Arte biziak, hilik?

Arte biziari ezarri zaie zerga. Adibidez, antzerkiari eta zuzeneko musikari. Susmo guztien arabera, izugarritzeko galera ekarriko du neurriak, lehenagotik ere krisi ekonomikoak eta diru-laguntza publikoen murrizketek —kalkulatzen da 2005eko kopurutan dabilatzala une honetan— ondo astinduta zeukatelako sektorea. Berriz ere sortzaileek musutruk lan egin beharko dutela dirudi.

Iker Arroniz, Gasteizko Jimmy Jazz aretoko arduraduna da, baita Kultura Live musika

zuzenean eskaintzen duten Hego Euskal Herriko aretoen elkarteko kide ere. Arronizi ere erabat okerra iruditu zaio igoe-
ra, “oso altua baita, Europako beste estatuekin konparatzen bada, altuenetakoa. Kultura sustatu nahi bada ezin zaio horrela-
ko zergarik ezarri”. Musika industriari arte eszenikoei gertatzen zaien bezalatsu gertatzen zaio eta neurri honek enpresari txiki-
en eta sortzaileen egoera larria areagotu besterik ez du egingo. Arronizek dioenez, “zuzeneko emanaldi gutxiago eskainiko dira, sarreraren prezioaren %35etik gora zergak izango direlako. Beraz, bizi dugun egoera dela-eta sarreraren prezioa ezin denez gehiago igo, eskaera eta eskaintza urrituko dira”. Antzerkian gertatuko den bezala, Jimmi Jazzeko arduradunaren ustez “zergak bertako musikari eragingo dio bereziki. Atzerriko taldeak ikusteko grina handiagoa izan ohi da beti eta haien zirkuitua ere txikiagoa izaten da. Baina bertako taldeak sustatzeko orain arte egin diren ahaleginak zailak baldin baziren, are zailagoak izango dira aurrerantzean, baldintzek okerrera joko dutelako eta aurrera emandako pausoei (kontratuak, segurtasun baldintzak, egile eskubideak...) atzeraldia helduko zaie”. Amaia Ibañezek bezain ilun ikusten du etorkizuna Arronizek. “Geroz eta lanbaldintza kaxkarragoak, soldaten jaitsiera, kontzertuak antolatze-ko aukera eskasagoak, bai ikusle kopurua murriztuko delako, baita



**Gironako Bescanó antzokiak eta Poca Cosa antzerki konpainiak, Espainiako Gobernuak ezarritako neurriari muzin egitea erabaki dute. Suicidas obra ikusi nahi duenari azenarioa eskainiko zaio antzokirako sarreraren orde-
dez, eta hala, %4ko BEZa besterik ez zaio aplikatuko.**

kontzertuak antolatze-ko behar den mozkina gero eta txikiagoa izango delako. Horixe da dator-
kiguna”.

Pirateria nagusi

Carlos Juarez Euskal Zine Ekoizleen elkarteko presidentea-
ren hitzetan “kulturak ezin du luxuzko zerbait izan”. Zinema-
gintzak egun ilunak bizi ditu, pirateriak eta telebista publikoek

zein pribatuek kulturarekiko erakusten duten interes faltak hondora eramane-
n aspaldu. Carlos Juarezek uste duenez, “krisiak denok astindu gaitu, denona da. Zinea lehen maila-
ko gaia ez denez, kontsumoak atzera egingo du dudarik gabe, eta ondorioz, Internet izan-
go da kontsumorako bidea. Sektorearen krisia lehendik dator, baina neurri gabeko igoe-
ra honek elitista bihurtu nahi du zinema”.

Euskal Zine Ekoizleen elkarteko presiden-
tearen aburuz, “konplikatu da etorkizuna. Alde batetik, sektoreari emandako diru-
laguntzen murrizketa dago. Bestetik, telebista kateek kulturarekiko duten interes falta. Errentagarriagoa zaie Belen Esteban jartzea eta horrek ere areagotu egin du zine ekoiz-
leen egoera. Pirateriari ere ez zaio irtenbide-
rik eman, eta gainera zergen igoe-
ra. Sekto-
reak lanpostu ugari galduko du, eta enpresak itxiko dira”.

Beste diziplinetan bezala, BEZaren igoe-
ra hau bertako zinemagintzaren kalterako dator. “Euskal zinemagintzarako bereziki izango da kaltegarria, bestela ere gehienetan inbertsio falta izaten duelako. Bestetik, mer-
katua erregulatze-ko nahia aspalditik dator, baina gauzek horrela jarraitzen badute, esku gutxitan geratuko da merkatua, zinemagintza estatubatuarraren mesedetan, noski, eta honen ondorioz zine eskaintza murriz-
tuko da”. ■



“Bertako taldeak sustatzeko orain arte egin diren ahaleginak are zailagoak izango dira aurrerantzean, baldintzek okerrera joko dutelako”

Iker Arroniz, Jimmy Jazz aretoko arduraduna



© Gert Voor in't Holt



ERAKUSKETAK

HARITIK TIRAKA Proiektua

ARTIUM bildumaren hiru erakusketa

ISPILU IRUDIA (Hegoa aretoa)

ERRAIEZKO ARIMA (Ekialde-Behekoa aretoa)

ATRAKZIOEN MUNTAKETA (Iparrak aretoa)

ARTIUM 2002-2012: Irudiak eta dokumentazioa

Liburu erakusketa

ETA ZUK, ZER BILDUMATZEN DUZU?

Hezkuntza erakusketa

Argibide gehiago:

www.artium.org

François Ozonen *Dans la maison* filmak irabazi du Urrezko Maskorra eta Pablo Bergerren *Blancanieves* (behean ezkerrean) izan da Sail Ofizialeko beste garaile nagusia. Fernando Truebak *El artista y la modelo* (goian eskuinean) filmari esker zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra eskuratu du. Aldiz, Sail Ofizialeko proposamen sendoenak, Costa-Gavrasen *Le capital* (behean eskuinean) ez du saririk eramane.



Sail Ofiziala

Goya sarien bezpera

MAILA ONEKO SAIL OFIZIALA ikusi dugu aurtan azken bi urteetakoaren aldean, eta beharbada horregatik, palmaresa ezagutzera eman denean ez ditu inoren begietako globoak leherrarazi. Kontsentsu grisetik gertu ote gaude kritika egurkoiak partitzeko hain egokiak ziren Zinemaldiko sarietan? Ez hain azkar. Lotu zaldi hori, bakero.

François Ozonen *Dans la maison* pelikula ona da, inor lotsaraziko ez duen Urrezko Maskor bat behingoz –akordatzan iazko Isaki Lacuestaren *Los pasos dobles*ekin? Ez? Nik baino zorte hobea duzue orduan–. Woody Allenen ildora hurbil daitekeen umorea eta tematika, fikzio-mailen arteko jolasa, istorioak kontatzeko beharrari buruzko gogoeta... Literatura irakaslearen bizitza dantzan jarriko duen ikaslearen istorioak ariketa polita planteatzen dio ikusleari; baina inpresioa dut hori besterik ez dela, ariketa bat, eta metafikzioaren hasierako lilura gaindituta, ez duela ikusi ditugun beste pelikula batzuek adinako arrastoa utziko.

José Sacristanek *El muerto y ser feliz*en egin-dako lanarengatik irabazi duen Zilarrezko Maskorra bidezkoa da; gauza bera esan liteke Katie Cosenik *Foxfire*engatik jasotakoaz. Zalantza handiagoa sortzen dit Macarena Garcíaenak, *Blancanieves*—barka snob jartzea baina— gainbaloratutako pieza iruditut bai-

tzait. Eta Fernando Truebak *El artista y la modelo*n asmatu duela uste dudaren arren, osagairen bat falta zait palmaresa behar den bezala interpretatzeko.

Espainia da osagai hori, edo hobe esanda, Espainiako zinema industriak urtea joan eta urtea etorri Zinemaldiko sarietan eragiteko erakusten duen gaitasun ez batere harrigarria. Zortzi opari nagusietatik lau zuzendari, pelikula eta aktore espainiarrentzat izan dira 60. edizioan eta aurtengok beste urteetakoek baino meritu handiagoak egin dituzten arren, kromoak bezain erraz aldatuko nituzke izen batzuk —Costa-Gavrasen *Le capital* ezer gabe geratzea oso bidegabea da, adibidez—.

Adi, ez bainaiz Espainiako zinemari buruz ari orokorrean, Pancorbotik beherako lobby ilun batzuek bultzatzen duten zinema-gintza mengelari buruz baizik. Eta *Blancanieves* mota horretako ekoizpenen azken alea besterik ez da, gaur Zinemaldian saritua, bihar Oscarretarako hautagai eta etzi, duda gutxirekin, Goya sorta baten jabe.

Zer beste topatzea espero zenuen ba —diost sorbalda gaineko deabrutxoak— Goya sarien bezpera bihurtua den festibal bateko palmaresean?



Gorka Bereziartua


Zabaltegi eta Zuzendari Berriak

Errelatoak

PINOCHETI bi film eskaini dizkio aurten Donostiako Zinemaldiak, eta Zuzendari Berriak saileko sari nagusia lortu du horietako batek, Fernando Guzzoni txiletarraren *Carne de Perro* lanak. Diktadura garaian torturatzaile izan zen protagonista, eta horrek sortzen dion oinazearekin bizi behar du orain. Txileko garai ilunetara gerturatu den beste pelikulak, kritikarien txaloak jaso dituen Pablo Larrainen *No* biribilak, diktaduraren azken hilabeteak berreskuratu ditu, modu oso originalean. Modernizatzen ari den herrialdea erakusten du Larrainek, ekonomikoki indartsua azalean, itxuraz aurrera doana, baina atzealde zikina, askatasunik gabea eta krudela ezkututzen duena. Diktaduraren hasieraz mintzo den *Post Mortem* eta une bortitzenei buruzko *Tony Manero* lanen ostean, Pinocheti eskainitako trilogia ixten du *No*-k, iragana mahai gainean jarri eta ahanzturan galdu ez dadin. Berdin egiten du Eliane Raheb zuzendariaren *Sleepless Nights* dokumental gordin eta zirrargarriak, Libanoko gerra zibila protagonisten ahotik konprenitu nahian.

Begirada historian pausatu eta beren herrialdetako errelatoa eraikitzen, berrikus-ten eta kontatzen aritu zaizkigu zuzendariak, baina izan da besterik Zabaltegi Sailean. Ben Lewin estatubatuarren *The Sessions* saritu du publikoak, paralisi fisikoa duen gizon baten sexualitatea umorez eta naturaltasunez jorratzen duen film gomendagarria. Eta gozatu ahal izan dugu, adibidez, errealismo fantastikoarekin jokatzu emaitza bisual ikusgarria lortzen duen Benh Zeitlinen *Beasts of the Southern Wild* indartsu eta basatiaz, edo zahartzaroa, maitasuna eta duintasuna hain modu sotil eta era berean bortitzean azaltzeko gai den Michael Hanekeren *Amour* sako-naz.

Euskal ekoizpenaren saria Iñaki Ochoa de Olzaren erreskatea ardatz duen *Pura Vida* dokumentalak jaso du. Kurioski, sarirako sei hautagaiak dokumentalak izan dira, Euskal Herriko lanen artean dokumentalak gailendu baitira edizio honetan. Bi aipatzearren, emakumez osatutako musika taldea oinarri duen Fermin Muguruzaren *Zuloak* dokumental faltsuak zine-aretoak bete ditu ema-



Goitik behera:
Carne de Perro
Zuzendari
Berriak saileko
pelikula
irabazlea; Gael
García Bernal
No filmeko
protagonista;
kritikaren
Fipresci saria
jaso duen
Amour lana;
eta *Emak Bakia*
Baita, Oskar
Alegriaren
dokumentala.


naldi guztietan, eta surrealismo eta jolas kutsu nabarmena duen ezusteko ederra izan da Oskar Alegria iruindarraren *Emak Bakia Baita* dokumental berezia, kritikak goratua.



Mikel García Idiakez

Helduen literatura | ELEBERRIA

Ni, Vera.
Itxaso Martin Zapirain.
Elkar, 2012.



Martina, Vera bera da, baina Vera, ez da Martina bera

ITSASO MARTINEK bere estreinako nobelan ahots jolas handiz hainbat gai borobildu nahi izan ditu, bi zati aski ezberdinekin osatutako literatur testuan. Bi pertsonaia: Martina eta Vera. Martinak liburua- ren lehen partea betetzen du. Eromena gainera datorkiola ikusten duen, edo antsietate egoera bizi duen, eta ikaraz bizi duen emakume gaztea da Martina. Bigarrenean, Vera, Martinaren birramona 40. hamarkadan erotua, ume askoren ama psikiatrikoan sartua. Bi denbora oso ezberdinak, bietan ere emakumeak espazio hertsietan kokatuak, bietan ere emakumeak *in extremis*.

Bi parteak bat egin nahi izan ditu Itsaso Martinek ahotsen jokoen bidez. Lehenengo atalean, bigarren pertsonan hitz egiten duen narratzaile anonimo baten ahotsa, eta Martina berarena bere izkribuetan lehen pertsonan agertzen dena ageri zaigu. Bigarren atalean, Veraren ahotsa ageri zaigu, Martinaren errailetatik sortua bailitzan eta bi pertsonaia bat bailiran.

Kontua da Martinak gertatzen zaiona esplikatu behar duela eta eromena eszenifikatu egin behar duela. Hartaz, hiru teknika erabiltzen ditu, hirurak ere aski interesgarriak. Lehenik, haren trantzeak idazten ditu eta horretarako lehen pertsona eta eguneroko antzeko zerbait erabiltzen du. Bigarrenik, eleberraren gertakizun pare bat oso modu paranoi-

koan ikusarazten ditu. Eta azkenik, bere eromena ezagutzeko Vera, bere birramonaren istorioan sartzen da Martina. Hiruak ere teknika erakargarriak eromena modu poliedrikoan edota eskizofrenikoan ikusteko.

Niri izugarri interesgarria iruditu zait bigarren jokoa. Eromena kapituluak landutakoa. Izan ere, erritmo izugarritz ekintza bera hiru modu ezberdinez kontatzen baitigu narratzaileak, gertakizunak erabat nahasiz eta irakurlea zorabio honen gatibu bilakatuz. Iruditu zait, hortxe harrapatzen duela Itsaso Martinek irakurlea, aski ondo jakin duelako nahasmen egoera batek edonori lekarkiokeena adierazten, hain juxtu ere.

Beraz, eta bukatzeko, oso nobela interesgarria iruditu zait, agian nobela bi egiteko modukoa, izan ere, ni lehen partearekin eta aipatu berri dudan teknikarekin geratuko nintzateke. Eta iruditzen zait horrekin bakarrik aski istorio interesgarria osa zitekeela. Verarena beste nobela eder bat, historikoa nahi bada, egiteko utziko nuke. Eromena, diagnosis, historia gauza asko eta ahots ugari jarri dira abian hain orrialde gutxitan makurtzeko. Larre motzerako larregi, baina biziki interesgarri. ■



Gema Lasarte



GAZTELUPEKO
HOTSAK
WWW.HOTSAK.COM



Errabal 23 · 20590 Soraluze
Tel: +34 943 753 016 Fax: +34 943 750 139
gaztelupeko@hotsak.com

Mugaldekoak
Begiak Lekuko

Joserra Senperena
10 Trio piano, biolin eta akordeoiarako

Capsula (1999)
Sublime

Capsula (2000)
Yudoka

Capsula (2002)
Capsula



«Rock&Rolla norberari ipurtzuloan jartzen zaiona egitea da»

ELANTXOBE ETA IBARRANGELUKO kideek ipurtzuloan jartzen zaiena egiten jarraitzen dute, eta batzuentzat proposamena arinegia bada ere, beraiek polbora asmatzearen kontra daude uretan busti eta indarra galduko luketelako. Horregatik rock and roll klasiko eta zuzenenaren alde egiten dute. Itsasoko giroari lotutako laugarren diskoa dugu eta Beach Boysen trazako surf-rock arina lehen baino gutxiago ageri da (“Domeka blues” salbuespen dotorea

surf-rockeroagoa da). Horren ordezt, balada rockeroak, punk-rocka, countrya, pop-rocka, 50ko hamarkadako rock and rolla eta hasierako Hertzainak-en pareko bizitasuna duten kantuak batu dituzte hitz lotsagabeekin. Iraganean rock and rolla ondo pasatzea, munduaz barre egitea eta mutiletan zein nesketan ibiltzea bazen, hauek denbora gelditzea nahi dute. ■

www.theuskis.com

Tximinotan
The Uski's.

Baga-Biga.
Iraupena: 37'13".
Biniloak 11 euro.



THE USKI'S

«Melodia da musikan garrantzitsuena, hitzak gehigarria dira»

Sasoi batean rock and rollak errebelia adierazi nahi zuen. Zuen rock and rollak zer adierazi nahi du?

Errebelia garaiek edo aroek behartzen duten zerbait da eta garai bakoitzean musika estilo batekin lotzen da. 1950eko hamarkada bukaeran rock and rollari egokitu zitzaion, 70ekoan punka izan zen. Rock and Rolla gorputzean eta ariman sentitzen den astindua da, alaia, dibertigarria, hori da guk bilatzen duguna.

Gaur egun galbidean bada-go ere, melodiak eta koroak zaintzeari garrantzia ematen diozue...

Melodia da musikan garrantzitsuena, hitzak gehigarria dira, ez dira beharrezkoak.

Orain talde gehiagok abesten dute bizkaieraz, baina zuek lehenetarikoak izan zineten. batuaren/gipuzkeraren diktaduraren kontra?

Gatibu gure aurretik zebilen bizkaieraz (Gernikeraz). Ez gaude ezerren kontra. Zalantzan izan



IKER BARBERO

ginen gazteleraz edo euskaraz, baina euskara aukeratzean, gure euskaraz izan behar zen.

“Hondartzako soinetatik itsasokoak lantzeraz” pasa zaretela diozue. Ez dago beldurrik itsaso zabalean sartzeko?

Itsasoan jaio eta bizi gara, gure ama da, ondo ezagutzen dugu,

errespetatu egiten dugu, maite dugu. Surfaren inguruko gaietatik alenduz goaz eta portua gehiago ageri da orain.

“Ilargijek antza gaurko topau deu bikotie”. Egunerokotasunean eta gauerokotasunean inspiratzen zarete hitz hain ganberroak idazteko? Autobiografiak dira?

Asko bai, beste batzuk ez, kasu honetan oso. Egunerok bizitzen diren istorio txikietatik, bai dibertigarriak direlako, edo maitasunezkoak, edo ganbera da hutsak direlako, beti atera daitezke gaiak.

Sakonean rock and roll taldeak ligatzeko egiten ziren. Zuen hitzetan neskak barra-barra ageri dira eta hainbat disko daramazue, baina ligatzen duzue?

Batzuek besteok baino gehiago. Egia da agertokira igotzeak, berez, lana aurretzen duela, baina ez da hori helburua, beti. ■



Urriaren 14an Donapaleura, Deskonkista aldarrikatzera

1512KO UDAN, Frantziaren kontra-ko gerraren aitzakian, Espainiako armada Nafarroako Erresuman sartu eta mendearen hartu zuen. Konkistatzaileengandik ihesi, Donapaleura bildu ziren patriota asko eta libera- zioaren armada osatzera deitu zuten urte hartako irailaren hondarrean. Bi aste geroago, Iruñera bidean jarri ziren milaka lagun —euskaldunak ez ezik, baita gaskoiak eta biarnesak ere—, Nafarro-ako burujabetza berres- kuratzeko ahaleginean. Haiekin batera hiriak eta eskualdeak altxatu ziren.

Gertaera historiko haren 500. urteurrena oinarri, urriaren 14an Donapaleun elkartzera deitu du Baxerrabarreko Nafartar Naturalak tal- deak, Nafarroa Bizirik ekimena lagun duela. Deskonkista Kolektiboa aldarrikatzea da asmoa. Festa giro koloretsu eta

umoretsua agindu dute. Egun sei- nalatu horretara deitzeko, Lapurdin suak piztuko dira bezperan, mendi kaskoetan. Merindade historikoeta- tik autobus ugari espero da. ■



Hemeroteka

OSKAR ALEGRIA,

Emak Bakia baita filmaren zuzendaria

“Errorea zoriaren senidea da”

“Filmean bide-orria erakusten da zati batean. Erbi batek mundu honetan egunero egiten duen ibilia da. Liluratzen nau. Hieroglifikoaren antzekoa da, kurbaz, zalantza, itzu- liz, albo jauziz betea, ez dago pauso zuzenik, esango genukeen bezala. Euskal dantzetan ere halamoduko zerbait ageri da, Zortzikoetan, esate batera. Raveli ere eragin zion horrek, haurra zela Ziburuko pla- zan ikusi zuenetik. Hortik datoz

bere lehen pianorako lanak, ia estro- pezuka emanak. Natura bere fun- tsean. Aurrera egiteko modu inper- fektu horrek, Zatopeken urratsen moduan, estilorik gabeko mugimen- du horrek, espero ez den tokira era- man zaitzake, ibaiek beren ibilbi- dean egiten duten moduan. Etxe baten bila abiatzea bezalako abentu- ran erritmorik egokiena da.” ■

Gara, 2012-09-28



DANI BLANCO

Willis Drummond taldeak bidean du disko berria

LAUKOTEAK aurreratuxe du lan berria. Nahasketa faseari heldu dioten honetan, Torontoko Bron- co estudioetara jo dute. Bost urte- tan hiru disko plazaratu ostean, laugarren hau Bidehuts-en eskutik helduko da urtearen amaiera baino lehen. Kilometroak dela eta, urriaren 7an Andoainen eskainiko dute kontzertua, eta azaroaren 10ean, Barakaldon, Becatu festi- balean. ■

Arabako Txapelketan parte hartuko duten bertsolarien zerrenda osatuta dago

ARABAKO Bertsolari Txapelketak baditu dagoeneko, bertan parte hartuko duten 30 bertsolarien ize- nak. Horietatik 18 iazko txapelke- tan sailkatu ziren: Manex Agirre, Asier Otamendi, Oihane Perea, Ander Solozabal, Iñaki Viñaspre, Zigor Enbeita, Xabier Igoa, Ruben Sanchez, Izar Mendiguren, Alberto Martinez *Beitto*, Juan Mari Juaristi, Unai Mendibil, Felipe Zelaieta, Serapio Lopez, Rikardo Gonzalez de Durana, Ainhoa Comas, Irati Anda eta Andere Arriolabengoa. Aurre-kanporake- tetan sailkatu diren 12 lagunak, berri- z, hauexek: Paula Amilburu, Xabi Lopez de Santiago, Iñaki Tena, Maria Izaga, Orlando Arrei- taunaindia, Unai Bengoetxea, Iker Pastor, Beñat Oribe, Iker Olaba- rrieta, Jon Ruiz de Pinedo, Maia- len Saez de Okariz eta Jagoba Apaolaza.

2013ko urtarrilean hasiko da Arabako Bertsolari Txapelketa, eta martxoaren 16an Gasteizko Principal antzokian finala joka- tzen den arte luzatuko da. ■



1: Guilhem Senges frantziarrak Iruñeko Contraluz galerian jarri duen obretako bat. 2 eta 4: Abel Bourgeoisen irudiak, Donibane-Garaziko Josette Dacostaren atelierrean ikusgai. 3: Nagore Legarretak Ordiziako azokan eginiko irudia. 5: Sengesen estenopeika, furgoneta zaharra.

Argia harrapatzearen lilura

ESTENOPEIKA. Hitz jarioari estropezu egin arazten dion trakeskeria da kasik, irudiak hartzeko moduaren izendapena baino gehiago. Ahuntz-erdara dirudi, mordoilo kimiko horietako bat. Azido estearioa. Kamera estenopeikoa. Antzekoa. Alabaina, kontzeptu sinplea adierazten du, zulo estua, eta finean, fotografiak jatorrian zuen magia ezin hobeto irudikatzen: argia harrapatzea. Argi-zirrinta kaxa batean atxikitzea, eta ilunpe horretan, paper fotografikoan proiektatzea, margoketa-lana egin dezan. Zernahi izan liteke kaxa ilun hori. Esate baterako, kontserba lata. Horixe bera baitu, izatez, gatz-piperra horretan diharduenarentzat. Ia hutsetik abiatzea. Eta huskeria bat aski izatea nork bere neurriko tresna liluragarria fabrikatzeko. Lenterik ere ez baitu behar. Sakatzeko botoirik ere ez.

Prozesu osoaren jabe izateak adina, estenopeikaren bidez sortzen den estetikak limurtzen du argazki-

laria. Halaxe aitortu zuen Nagore Legarreta *Edipotoa* argazki-poesia liburuaren egileak (Banizu nizuke, 2012). Eta estetika hori xehatzen hasita, irudien testurak, zuri-beltzen kontraste gogorrak, azaltzen diren orbanak, eta zikinak, eta markak; aplikatzen duen denbora-filtro moduko hori, erretratuak antigoalekoak balira bezala itxurtzeko.

ABEL BOURGEOIS baigorriarrari arte grafikoak interesatu izan zaizkio txikitatik, serigrafia, sakongrabatua, inprimatzearekin zerikusia duten prozedurak, hala nola, goma bikromatua eta XIX. mendeko piktorialisten teknikak. Artista da. Ikerlaria ere bada. Estenopeikoaren moldeak liluratu du oraintsu, ia kasualitatez deskubritu zuela aitortu badu ere. Josette Dacosta margolariarekin bat eginda, Donibane Garaziko panoramika harrigarria ipini du ikusgai, margolariak Nafarroa Behereko hiriburuan bertan

duen aretoan –*Bi ikuspegi* izenburupean, urriaren 27ra arte zabalik, asteazken, ostegun, larunbat eta igandeetan, 15etik 19etara–.

GUILHEM SENGES. Herri paisaiak baino gai ausartagoak maite dituenak Guilhem Senges (Orléans, 1973) frantziarraren asmamen plastikoetara jo dezake. Bere irudimenak mugarik ez baitu, dena eta edozer nahasten du estenopeika edo kamera ilun bihurtutako tramankuluetatik abiatuta –inoiz, furgoneta zaharra bera–. Irudi bakoitza sortzeko prozesuan, pauso bakoitza bihurtzen du bere horretan artelan. Eskulturak edota dekoratuak ere egiten ditu, argazkian integratzeko beharrezkoak bazaizkio. Emaizta, umorea, rock and rolla, sexua edota politika uztartzen dituzten irudi sarritan surrealistikak. Iruñeko Contraluz galerian izan dira ikusgai. ■





Euskal Herria ezagutuz

ANBOTO

Ahuntzen eta Mariren erreinuan

Hamaika bide daude Durangaldeko eta Euskal Herriko mendi miretsienetakoa den Anbotoko gailurrera iristeko. Anbotok badauka, hala ere, besteetatik bereizten duen zera bat: baldintzak egokiak direnean zailtasun ertaineko mendia izanagatik, asko dira, belaunaldien joanean, gailurretik hurbil dauden igarobide malkartsuetan zorabioak erasanda ez aurrera ez atzera geratu diren txangozaleak. Eta eguraldi traketsarekin gailurra jotzen saiatu izan den bati baino gehiagori amesgaizto bilakatuko zitzaion, zalantzarik ez, ostera mendi magalera itzultze hutsa bera ere. Anboto, izan ere, Anboto da.

Testua eta argazkiak:

| GORKA AZKARATE |




URKIOLATIK ABIATUTA Asuntzeko lepoa igaro eta Zabalaldiko lepora heldu aurretik pagadian gora egiten duen bidea da gaur egun Anbotora igotzeko ohikoena. Asko dira, baita ere, Zabalaldiko lepotik gora –Olaeta, Ibarra, Arrazola edo Besaidetik heldu ostean– igotzen diren mendizaleak. Arrazola edo Axpetik abiatuz Anboto Sakona deritzon iparraldeko sakonunea, bestetik, geroz eta ezagunagoa da, Arrazola eta Anboto lotzen dituen Anbotoko Kilometro Bertikala lasterketa gogorraren ondorioz; bide-nabar, urriaren 6an, larunbata, izango da aurtengo edizioa.

40 minutu baino gutxiago behar izaten dute lasterketa horretako onenek Arrazola eta Anbotoren artean dagoen 1.000 metro baino gehiagoko paretia gainditzeko. Erre-portaje honen asmoa ez da, ordea, irakurlea markak ezartzera bultzatzea, Anboton txango arrunta eta eskalada erraza konbinatzen duten bide sonatuen arteko bi ezagunenak deskribatzea baizik: ziur aski zailena izango den iparraldeko edo Frailia-ko ertza eta Anbotoko Mariren kobazuloa ezagutzeko bidea ematen duen ipar-ekialdeko ertz ederra. Ezer gutxi!

Iparraldeko ertza: Frailia

Arazolan gaudela begirada Anbotoko hormarantz zuzenduko dugu ezinbestean, eta Frailiako gailurrak, iparraldeko ertzaren hasera markatzen duen tontor zorrotzak, erakarriko du gehien gue arreta. Iparraldeko ertzak Frailiako gailurra igotzeko aukera eskainiko digu, eskalada erraza eginez, erabateko



gozamenari atea irekiz. Baina Frailiako lepotxora heldu nahi badugu, malda gogorrak gainditu beharko ditugu Arrazolatik abiatuta, Anboto Sakona deritzon sakonunean gora. Baso-bide bat baino gehiago dago Anboto Sakonan sartzeko, baina Frailia gailurra hartuz erreferentzia eta Larranoko lepora doan bidea eskuinetan utziz, modu nabarmenean egingo dugu gorantz, harik eta Frailiako lepotxotik jausten dugun arte. Kanala pikoa da oso, baina arreta pixka bat jarritz zailtasun handirik

gabe igoko dugu. Badago, baita ere, goragotik abiatzen den bidexka ezkutu xamarra, belarrak eta denboraren joanak ia desagerrarazia. Edozein kasutan, arazo handirik gabe iritsi beharko genuke, batetik zein bestetik, Frailiaren oinera. Eskaladaren ordua iritsi da.

Frailiara igotzeko bi aukera daude: zuzenean eskala genezake hamabost metro inguruko paretia, punturik zailenean III+ zailtasun mailako pauso trakets xamarra daukana. Aukera errazago bat, ekialdeko isurialdetik metro batzuk jaitsi



Dive Tarpoon

urpekaritza

Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpooon@euskalnet.net
www.divetarpooon.com



KILO TERDI TXOKOA

Kilo t'erdiko txuleta
Legatz-solomoa plantxan
(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellaURI.com





Ezkerreko argazkian, Frailiako ertz osoa, Frailiako tontorretik ikusita. Erdikoan, Frailiako ertzean dagoen eskalada zatirik piko eta zailena gainditzen. Hurrengo orrialdean, Kurutzeta eta Elgoi inguruko hormatzarrak, Anboto Sakonara bidean.

eta artzainek ahuntzak jaisteko erabili izan duten belarrezko kanala igotzea da, zailtasun handirik gabe gailurrera eramango gaituena (kontuz belarra bustita badago!). 30 metroko sokatxoia eta eskalatzeko gogoa motxilan ekarri baditugu, lehenengo aukeraren aldeko hautua egingo dugu, nola ez. Behe-behetik hasita babestu daiteke eskalada, eta behin gailurrera iritsita, rapel pare bat eginaz jaitsiko gara oster lepo-txora, adrenalina topera daukagula.

Ez dugu, bada, lasaitzeko tarterik izango. Frailiako ertzak, harik eta Anboto Sakonatik datorren bidearekin bat egiten duen arte, atsederako tarte gutxi eskaintzen du, eta hortzak estutzeko parada bat baino gehiago. Ertzean gora goazela, lehenengo orratza ezkerretik saihestuko dugu –zailtasun handikoa da haren jaitsiera–, baina hortik aurrera, ertzetik beretik segituko dugu mendiari metroak irabazten.

Ertzak bi-hiru metroko horma-txo leunak jarriko dizkigu bata bestearen atzetik, eta ez da beti erraza izango esku zein oinentzako sostengu egokiak aurkitzea. Batzuetan behatz puntak baino ezingo ditugu jarri, eta bota puntarekin marruskadura erabiliz itsatsiko gatzazkio hormari bestetan, izerdi hotza era-

gingo diguten eskalada pauso ederak kateatuz. Ertzaren zati zailenean gaude, eta ez dugu arnasa lasai hartzerik izango Anboto Sakonatik datorren bidearekin bat egiten dugun arte. Sokaz laguntzea ere ez da hain erraza izango, Pirinioetan edo beste mendi multzo batzuetan ez bezala leuna baita ertza Anboto, eta lanak izango ditugu *friend* edo zintaren bat mendiari lotzeko. Horratx, ertzaren xarma!

Ipar-ekialdeko ertza: Anbotoko Mariren kobazuloa

Euskaldunon alegiazko munduan, Anboto mendiaz berba egitea Mari sorgina berpiztea da. Aizkorri, Gorbéa, Murumendi eta beste hainbat euskal mendi ezagunetan batera eta bestera ibili ohi dela sorgin ezaguna, halaxe dio kondairak. Anboto du, ordea, bizilekua, ipar-ekialdeko ertzaren zokogune ezkutu batean. Arrazola eta Anboto lotzea, ipar-ekialdeko ertzetik eskalada erraza eginaz igo eta Mariren kobazuloa bisitatu ostean, gainera, paraje hauetan egin daitekeen zailtasun maila ertaineko ibilbide ikusgarrirenetakoa da.

Zailtasuna ez da, gainera, muturrekoa, Frailiako ertz zorrotzean bezala. Eguraldi seguruarekin abia-

tzea komeni, ordea. Ibilaldiaren zatirik handiena bidez kanpo egin beharko dugu, hori bai, eta eskuak erabiliz zati handi batean. Arrazolatik hasiko dugu txangoa eta oraingo honetan parez pare izango dugun Frailiako tontorra ezkerretik inguratuko dugu. Berehala atzemango dugu Anbotoko gailurrari eusten dion ipar-ekialdeko gando-rra eta bere oinarriara joko dugu zuzenean, Zabalandira doan bidea albo batera utziz.

Abiadura handiz irabaziko ditugu metroak, bidez kanpo, harkaitza eta belarra uztartzen dituen malda pikoan gora. Poliki-poliki ertza zorrotzen joango da, eta Gerriko Kobie deritzon igarobide natural magikora iritsi bitartean, ertzak bidean jarriko dizkigun zailtasun handienei aurre egitea tokatuko zaigu. Behin Gerriko Kobiera iritsita, Mariren etxeko atarira iritsi gara- la esan dezakegu.

Gerriko Kobie tunela Mariren kobara eramango gaituen xenda zorbiagarria igarotzeko pasabidea da. Artaungo Sakona deritzan pilotaleku natural erraldoira eramango gaitu pasabideak, eta amildegiaren ertzean, aurrera egingo dugu, harik eta, 128 metro ibili ostean –neur-tako datua– Mariren kobara iritsi



arte. Tartean pauso zail bat dago, harri leun batek behera egiten duen puntu batean, eta altuerak beldurtu ez gaitzan, soka txiki bat erabiltzea ere ez dago soberan. Esan gabe doa –Mariren gordelekura heltzean sentituko dugun zirrararen deskribatzea erraza ez den arren– Euskal Herriko txokorik berezietako batera heldu izango garela.

Ikuspegi bertikal paregabeaz lasai gozatu ostean, atzera ibilbideari segida emateko ordua da; etorritako bidexka eseki beretik Gerriko Kobie pasa-lekura itzuliko gara kontu handiz, eta berau kontrako zentzuan zeharkatu ostean ipar-ekialdeko ertza joko dugu berriz. Gerriko Kobie eta Anbotoko gailurra banatzen dituzten azken metro-

ak ez dira teknikoki zailak, eta erraz egingo dugu gorantz. Azkenaldera ipar-ekialdeko eta iparraldeko ertzek (Frailia) bat egiten dute, baita Anboto Sakonetik datorren ohiko bideak ere. Helmuga gertu sumatuko dugu dagoeneko eta azken metroez gozatzea baino ez zaigu faltako, Euskal Herriko gailurrik bertikalenetako batera heltzeko, 1.000 metro baino gehiagoko gora-behera gainditu ostean.

Frailiatik zein Mariren koba gordetzen duen ipar-ekialdeko ertzetik, igoera ederra osatu dugu Anbotoko gailurrera, alde guztietatik mendizale usaina darion igoera latza. Ostera Arrazolara itzuli eta txango zirkular bikaina osatzeko, aukera anitz dauzkagu: errazenak

Zabalandiko lepora jaitsi eta handik Arrazolara itzultzea edo Anboto Sakonetik jaitea lirateke. Ertz bat bestearekin kateatu nahiak barrualdea zirikatzen badigu, ordea, Larrano lepora jaitsi gaitzake Anbotoko gailurreriako lehenengo zatia osatu ostean, Kurutzeta eta Elgoi gailurretatik igarota. Larranotik Arrazolara arazorik gabe jaitsiko gara. Igoerarako erabili ditugun Frailiako eta Anbotoko Damaren ertzak, ordea, hobe horretarako uztea: igoerarako. Ertz horietatik jaitea ez da gomendagarria, jaisteak, betiere, igotzeak baino zailtasun handiagoa daukalako. Aukera bat baino gehiago dago: gozatze-ko aitzakiarik ez! ■



Xapoa

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Arto transgenikoaren inguruko argi gorriak

IRAILAREN 19AN Frantziako CiiGen erakundeko ikerlariak *Food and chemical toxicology* aldizkarian argitara emandako artikuluak hautsak harrotu ditu.

Artikuluak adierazten denez, bi urtean zehar arratoi talde bat Monsanto tok –munduko transgeniko ekoizle handiena– genetikoki eraldatutako NH603 artoarekin elikatu ondoren, arratoi emeen hilkortasuna bizpahiru aldiz handitu da eta arratoi arren nekrosi kopurua bi eta bost aldiz bitartean handiagoak izan dira.

Ikerlariak Ipar Amerikan hasi zuten lana, hango hiru eremutan arto mota desberdinak landatu baitzituzten: ohiko artoa, ohiko artoa Roundup herbizidarekin nahastua, arto transgenikoa eta arto transgenikoa Roundup herbizidarekin nahastua. Horietako bakoitzarekin kroketak egin zituzten, eta bi urtean horiek izan ziren arratoi taldeen jana.



Arto transgenikozko kroketak jan zituzten arratoiak, ohiko artoarekin elikatu zirenak baino azkarrago hiltzen hasi ziren, hainbat tumorearen eraginez. Tumore gehienak titietan eta pituitarioetan garatu ziren emeengan, eta kopurua ohikoa baino %50-%80 handiagoa izan zen.

Ikerketa honek hautsak harrotu ditu ikerlarien, ekoizleen eta politikarien artean, eta berehala hasi dira aldeko eta aurkako iritziak plazaratzen. Egia da lehen aldia dela hain denbora luzean aztertzen direla transgenikoen eraginak, baina egia da ere ikerketak bi puntu ahul dituela: batetik, probetan erabilitako arratoi kopurua txikia izan da, hamar ale baino ez baitira erabili; eta bestetik erabilitako arratoi espezieak tumoreak garatzeko joera du.

Gizartean lortu den efektu mediatikoari buelta ematea zail izango du Monsanto edozein gauza egiten duela ere, batez ere gizakiok bizirauteko dugun senak adierazten digulako transgenikoarena mendetan garatutako eta eboluzionatutako biziaren aurkakoa dela. Egindako ikerketaren ildotik ikertzen segitzea da egokiena, baina nork jarriko du dirua horretarako? ■



Afrikan bi etnia gure aitzindari

Gizakia Afrikan sortu zela ziurtzat ematen dute zientzialariak, baina hasierako gizakitik gaur egun dagoenera bitartean aldaketa ugari gertatu dira eta aldaketa-katearen begi garrantzitsu bat Hegoafrikan aurkitu da, Khoi eta San populazioetan. Bi etnia horiek orain 100.000 urte hasi ziren bereizten ordura arteko gizakiarengandik.

ttiki.com/42581
(Gaztelaniaz)

Orain 13.000 urte birziklatu egiten zen

Kataluniako bi unibertsitatek egindako ikerketa baten arabera, Goi Paleolitoko gizakiak harrizko tresnak birziklatzen zituen, hainbat erabileratara moldatzen. Azterketa egiteko Molí del Salt-eko aztarnategian aurkitutako hainbat tresna erabili dira.

http://ttiki.com/42582
(Gaztelaniaz)

Litio bateriak azkarrago karga daitezke grafenoaren bidez

Telefono eta ordenagailu eramangarriak eta automobil elektrikoak litiozko bateriak dituzte, eta denok dakigu tresna horiek kargatu ahal izateko gutxienez ordu bate behar dugula. Rensselaer Institutu Politeknikoko (AEB) ikerlariak grafenoazko anodoa duen litiozko bateria osatu dute, eta horren bidez karga denbora hamar aldiz murrizten da.

ttiki.com/42583
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Irakurleak galdezka



Kaixo Jakoba. Nebari esan diot beharbada argituko zeniokeela zer egin baratzean duen pare bat arazorekin. Lehena, mertxikondoak ematen dion fruituak harra duela zuhaitzetik. Bigarrena, zerbek ez dutela kolore berdea, horixka baizik, eta horrez gain, hostoak zuloz beteak. Eskerrak aurretik.

Maite Madariaga (Bilbo)

Kaixo Maite eta neba.

Prunus persica, mertxikondoaren harra “ekialdeko beldarra” dela esango nuke, *Grapholita molesta*, Asia ekialdeko jatorriak eman dio izen hori. Batez ere fruitua berandu ematen duten mertxikondoek sufritzen dute. Zaila da oso bere aurkako gudua. Ia beti lehen belaunaldiek arbolaren kimuei erasotzen



Zerba, *Beta vulgaris*
var. *cicla*.

diete, kiribilduz eta alferrik galduaz. Orduan azti ibili behar da: kimuak kendu. Harrak han izango dira eta ezin sortuko dute hurrengo belaunaldirik. Orain harrak erasotako fruitu guztiak bildu, ez utzi arbolan edo lurrean haren pean.

Zerbari dagokionean, *Beta vulgaris* var. *cicla*, berez horiak diren aldaerak badira, Lyongoa adibidez. Bestela lurrean desorekaren bat egon daiteke, simaur gehiegia sortutakoa edo berez jakiren baten falta delako: magne-

sioa, burdina... Zuloei dagokienez harren batek edo barraskilo edo bare txikiek egingo dituzte. Horiei aurre egiteko azpian zerrautsa, sutautsa edo karea jarri eta landareak egun batzuk uretan eduki, bertan xaboia eskuekin igurtziz erantsi eta ur horrekin busti goi eta behe, gain eta azpi, ondo busti. ■

Gurbe ardatzeko dolarea

GURBEA, *Sorbus domestica*, landatu beharra daukat. Ea behingoz gustu goreneko sagardo naturala egiteko gai naizen... Lagun ardogle bati ere barrika batean lardaskatzen uzteko eskatuko diot. Helburua: sagardoa eta ardoa paregabetsunera eraman, gurbearekin. Horixe paregabea, inork ez baitu honela egiten. Karea nagusi den lur bat topatu beste aukerarik ez dut... Hala ere beste *Sorbus* jendearen aldean ikaragarritzko erraztasuna du lurra eta klima aldetik aproposenak ez dituen beste baldintza ekologikoetako tokietara egokitzeko. Bere *Sorbus* senideak, estu eta zorrotzak izaki, galbidean ditugu Euskal Herrian. Hau hedatzen hasi behar...

Landare garrantzitsua, lehen asko aldatzen zen: aziendarentzako bazka, jendearentzako sendabellarra, irina egiteko, konfitura eta uxuala gaia... Hala ere, fruitu ardoglea zen helburu nagusia: tanino izugarri du eta ardoak argitu edo arazteko, buketa indartzeko eta hobeto iraunarazteko ona. Baina zura ere ez du nolanahikoa: lantzeko erraza eta fina, malgua, astuna, trinkoa eta sakadura jasaten duena. Helburu jakin batzuetarako onena, garestiena zen. Haritzarenak metro kuboak 700-800 kilo eta gereziarenak 550-600 pisatzen badituzte, gurbearena 800-900 kilo tartean dabil. Astuna eta trinkoa. Sona handikoak ziren gurbe zurezko marrazketa tresnak: erregelak, galgak, eskantilak, jostunen metroak... Mendetan tresna eta lanabesen etxeak, armazoiak edo gorputz-egiturak egiteko erabili izan da, sagarrondoarena baino estimu handiagoan: arrabota, marrusketa edo garlopa, gilaumea... Errotetako tresnerian ere, engranajeko hortzak gurbezkoak izan ohi ziren. Baita torlojuak, dolare ardatzak, musika tresnak (txirulak...), ontzien brankak... Erabilpen horiek gehienak galduak dira, baina oraindik ere zurgintzan izen handia du. Gaur egun zur berezia eta topatzen zaila da, eta batez ere altzarietan xafla gisa darabilte. Udate suitzarra izenarekin dabil merkatuan eta urte prezioa du. Beste inon ez bezala, Suitzan bertan gurbea berreskuratzeko saiota ari dira.

Taxuzko gurbidirik ez dut ezagutzen, baina jarri beharra dago... Sagardo onaren bidean. Ea zortzi pitxerkadako edo hamasei litroko gurbilak betetzen ditugun... Eta hiru gurbileko zahagiak husten! ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

NEKOSTA ----- MESPREZA- GARRI	↓	ESKUZ ERABILI ----- BIZI GAREN PLANETA	↓	NAFARROA- KO HERRIA	 DANI BLANCO	DAMU ----- ALBOTIK IKUSTEN DEN AURPEGI- ALDE	↓	NAFARROA- KO HERRIA ----- ELEMENTU KIMIKO	↓	BIZIKI ----- ATXILOTUA	↓
MUSIKA MOTA ----- ABIZENA	→					LURPEKO KARTZELA ----- EUSKAL JEINUA	→				
↓				LETRA IZENA ----- PUTZ		↓	UZTA-AZAO MULTZO ----- ESANA	→			
ENERGIA ----- ISLADA	→	JAIO TERRIA ----- MUSIKA TRESNAK EGI- TEN DITUENA	→					DEUS ----- BIZKAIKO MENDIA	→		
↓				ZEIN GAUZATAN ----- IKUZTEN DUENA	→				MOLIBDE- NOA ----- ORDEA	→	
GEHITZEAN DATZAN ERAGIKETA MATEMA- TIKOA	→	UTIKAN! ----- MENDIKO ATEA	→			ELEMENTU KIMIKOA ----- GARRAIO- BIDEA	→				EKINTZA
↓								BAKOITZAK BOST ----- IZENA	→		
TORIOAREN SINBOLOA ----- HARRI HANDI SAMAR	→			ELEMENTU KIMIKOA ----- NONDAR ATZIKIA	→				TIK-..., ERLOJUA ----- LETRA ERREPikatua	→	
↓					ELIZ KANTARI ----- DEZIMETRO	→					AZKEN LETRA ----- ... EGIN, ERABAT ASE
ZERBAITI KEA DARION ALDI ----- HARTU- EMANA	→					MIRABE ----- NITROGENOA	→				
↓								ATZIZKI DESTINA- TIBOA	→		

FR J. BRADLEY-CC BY SA

	Z	M					D	I	B
B	L	A	U		S	S	L	A	I
P	U	N	K		L	E	O	T	Z
E	R	E	A	E	E	U	L	T	Z
E	I	U	Ñ	E	A	E	Z	E	R
I	S	L	Z	E	R	T	A	N	O
	U	T	I	K	E	N	I	O	A
B	A	T	U	K	E	R	A	B	O
T	H	U	R	A	N	I	O	T	A
H	A	I	T	X	A	N	T	R	E
K	E	A	L	D	I	M	O	R	R
H	E	R	F	M	A	N	A	R	A

Locomotive Act 1685: ideia ona garai txarrean

NATIONAL MOTOR MUSEUM UK



1865eko Locomotive Act delakoak derrigortuta, ibilgailuek hiru pertsona eraman behar zituzten gutxienez, eta horietako batek bandera gorri bat astindu behar zuen, ibilgailua zetorrela jakinarazteko.

ERRESUMA BATUA, 1865. The Locomotive Act, hau da, mekanikoki propulstaturako ibilgailuen erabilera arautzeko legea promulgatu zuten. Ez zen hura motordun ibilgailuei buruzko lehen araudia, baina 1861ekoa zaharkitua geratu zelakoan egin zuten berria. 1861eko zirkulazio legeak hamabi tonako eta orduko hamasei kilometroko muga ezarri zuten ibilgailu mekanikoei. Hala ere, automobilgintza industria jaioberriaren mesedetan araudi laxoagoa prestatu beharrean, 1865eko legeak askoz neurri zorrotzagoak ezarri zituen.

Abiadura mugak izugarri murriztu zituzten: 3 km/h hiriguneetan eta 6 km/h herri arteko errepideetan. Dena den, abiadura muga horiek ez ezarrita ere, ibilgailuek ezin zuten askoz azkarrago ibili, legearen arau zorrotz eta ezagunena betez gero.

Autopropulstaturako ibilgailu bakoitzak, derrigorrez, hiru pertsonaz osaturako taldea behar zuen: bata, gidaria; bestea, sugina edo ikatz botatzailea, 1885ean gasolina bidezko lehen konbustio motorraz zebilen automobila asmatu baino lehen ibilgailuak lurrin motorraz baitzebiltzan; eta hirugarrena, bandera gorridun kidea. Hirugarren hori ezin dugu berez eskifaikidetzat jo, denbora gehiago ematen baitzuen oinez ibilgailuan baino. Ibilgailu mekanikoen

aurretik, 55 metroko distantzian, ibili behar zuen, bandera gorria edo eskuargia astinduz, oinezkoek, zaldizkoek edota gurdi gidariak motordun makina arriskutsu horietako bat –batez ere gehieneko 6 km/h-ko ziztu bizian– hurbiltzen ari zela jakin zezaten. Horregatik, herritarrek “bandera gorriaren legea” esaten zioten.

Horrenbestez, zirkulazio lege zorrotzak asko moteldu zituen ibilgailu motordun berriak. Salgaien garraioari dagokionez, horrek mesede egin zion berez ere izugarri hazten ari zen ferrokarrilari. Oztopo handia izan zen, ordea, automobilgintzarentzat. Baldintza horietan ez zuen merezi motordun ibilgailu garestitan inbertsiorik egitea, eskaera izugarri murriztu zen eta, Industria Iraultzaren bihotzean, etorkizun oparoko jardura moteldu egin zen, legea 1896an bertan behera utzi artean.

Gaur egun, Locomotive Act hura indarrean jarri eta ia mende eta erdira, OAI bideak –okupazio altuko ibilgailuentzako lerroak– ugaltzen ari dira nonahi. Legeek gutxieneko pertsona kopurua ezartzen dute bide horiek erabiltzeko. Eta, orain bai, mesedegarriak dira, eraz automobil industriarentzat, baina bai ingurumenarentzat. ■



Arrastoak

Euskal, espainiar ala belgikar tortilla?



PIGS IN BLANKETS

Patata arrautzopilaren euskal jatorria sustengatzen duen dokumentua 1817koa da. Nafarroako Batzar Nagusieta- ra bidalitako idazki batek dio Iruñeko biztanleek bi edo hiru arrautza patatekin eta ogi zatiekin nahasten zituztela bospasei lagunentzat. Batzuen ustez, Tomas Zumalakarregi bera izan zen, beharra medio, arrautzopil ezaguna asmatu zuena; armada karlistaren gosea merke eta erraz asetzeko moduko jakia zen.

Berriki, CSICeko zientzialari Javier López Linajek, *La patata en España. Historia y agroecología del tubérculo andino* lanean, patata tortillaren jatorria Villanueva de la Serena (Extremadura, Espainia) herrian kokatu du. 1798ko dokumentu batean jakia aipatzen da, baita ustezko asmatzailea ere: Joseph de Tena Godoy, Robledoko markesa.

Baina ia 200 urte lehenago, 1604an, Lièjeko gotzainaren sukaldari Lancelot de Casteauk arrautzak eta patatak nahasten zituen erregeta idatzi zuen, egungo ohiko tortillaren antza handirik izan ez arren.

Orduan, non asmatu zen? XVII. mendea baino lehen ere ziurrenik bati baino gehiagori bururatuko zitzaion lehengai horiek nahastea. Beraz, ondare unibertsaltzat jo genezake. Merezi du eta. ■

«Handitzeko operazioekin Kutxabank kiebran legoke»

Legelaria, Bilbon jaioa 1959an. Mondragon Unibertsitateko lehendakari eta MCCko idazkari nagusi izana, Adrian Zelaia Ekai Center-en dihardu egun, ekonomiaren eta politika publikoen arloan lan egiten duen ikerkuntza zentroan. Europar Batasuneko Industria Eraldaketarako Aholku Batzordeko kide ere bada.

| URKO APAOLAZA |
Argazkiak: Dani Blanco

Independentziak on edo kalte egingo lioke Euskal Herriko ekonomiari?

Horren modu zehatzean ez dugu aztertu. Arlo finantzarioan dauden tsunamiak ikusita, garrantzitsua da ekonomia erreala indartsu dagoen guztiak babestea: enpresak, udalak edo herrialdeak izan. Euskal Herria ekonomia errealearen gune bat da eta ikuspegi ekonomiko batetik "gotortu" egin behar da. Baina egia da arduradun politikoek, ideologia batekoak zein besteak izan, ez dutela beti hori kontuan izaten eta arazoak eta diagnostikoak nahasten dituztela.

Katalunian independentismoaren gorakada egoera ekonomiko zailarengatik izan dela diote. Euskal Herrian ez omen da berdin...

Ez dakit zein punturaino argi ote dauden oinarriko kontzeptu batzuk. Azken urteotako kontu larriarenak bat Euskal Herriko sistema finantzarioarekin gertatu da, eta ez da izan alderdi estatalek jarrera bat izan dutelako eta abertzaleek beste bat. Harago doan gaia da: alderdi abertzaleak ez badira gai Euskal Herriko ekonomiarako oinarritzekoena dena defendatzeko... Independentziaren eztabaidan sartu aurretik badaude beste faktore batzuk.

Europako Banku Zentralak ia bilioi bat euro eman die bankuei, %1eko interesarekin baino ez. Zergatik diru hori ez da zirkulazioan jartzen ekonomia errealean?

Europa osoan borroka dago ekonomia errealearen eta sistema finantzarioaren artean. Nolabait sinplifikatuz: sistema finantzarioak behar ditu berak ez dituen errekursoak aurrera ateratzeko, eta estrategia politikoak martxan jartzen dira errekurso horiek atera ahal izateko gobernuetatik, enpresetatik eta familia ekonomiatik.

Elkargiko presidentearen esanetan enpresek finantzazio falta dute eta formula berriak behar dira kredituak eskuratu ditzaten. Zein lirateke zure ustez formula horiek?

Adibidez, Europako Banku Zentralak ez luke laguntzak bideratzeko tresna izan behar, Europako Inbertsio Bankua baizik. Errekurtso gehienak EBZtik igarotzen dira, eta

horrek esan nahi du dirua banku sistemara doala, ez ekonomia errealeara. Europako Inbertsio Bankutik igaroz gero, aldiz, helburu oso zehatzetarako erabiliko litzateke: enpresa txiki-txiki kredituentzat, inbertsio teknologikorako edo zenbait azpiegitura egiteko. Badakigu EBZtik egiten diren operazioak sistema finantzarioa indartzeko eta bere galerak konpentsatzeko baino ez direla.

Zer ari da gertatzen EAEko aurrezki kutxen bat egitearekin?

Iaz, fusio prozesua bat-batean banku bihurtzeko prozesu bilakatu zen, eta ez da aldaketa formal soilak izan, bi helburu estrategiko ditu. Alde batek, beste inbertitzaile batzuk sartzea, hori momentuz geldirik dago, baina ez dakigu noiz arte. Eta bestetik, Euskal Herriko kanpoko banku erraldoi bihurtzea, egoera zailean dauden beste bankuak erosiz. Operazio batzuk egin dira, Cajasur-ekin esaterako, eta beste batzuetan ere sartu dira: Catalunya Banc, Caja de Ahorros Mediterraneo... Eskerrak ez direla atera, momentu honetan Kutxabank kiebran egongo bailitzateke.

Ekai Center-en oso kritiko azaldu zarete prozesu horrekin.

Harrigarriena da kritika gehiago ez egotea, eta hori bakarrik ulertu daite-

“Alderdi abertzaleak ez badira gai Euskal Herriko ekonomiarako oinarritzekoena dena defendatzeko... Independentziaren eztabaidan sartu aurretik badaude beste faktore batzuk”



“Espainiako Bankuaren irizpideak ekarri dira Euskal Herrira, hemengo finantza erakundeak oso ondo zeudenean”.

ke Kutxabank-ek herri honetan duen pisuagatik; azken batean finantza sistemen erdia da eta indar handia du maileguak eta diru-laguntzak emateko orduan. Oraingoz ez dakigu zein diren asmo zehatzak, baina hilabete honetan giltzarri izango diren erabaki batzuk hartu behar dituzte.

Zeintzuk?

Eurotaldearekin sinatutako memorandum batek irizpide berria jarri du mahai gainean: aurrezki kutxek ezin dituztela bankuak kontrolatu. Horren inguruan erabaki behar dute, banku bihurtzeko prozesuaren kontra baitoa.

Harrigarria da. Kutxabankek eman dituen pausoak derrigorrezkoak zirela errepikatu izan dute proiektuaren defendatzaileek, baina European beste norabide batetik doaz...

Hori, hemengo finantza estrategiak Espainian gertatzen ari zenarekin kutsatzen utzi ditugulako izan da. Espainian aurrezki kutxek oso ondo funtzionatu dute 90 urtez, baina

azken urteetan gehiegizko zorpetzearen tranpan erori dira eta bankuen mentalitatea hartu dute; euren esparru naturaletik atera dira. Hori da hain justu kutxek egin behar ez dutena, kutxek zentzua baitute eskualde bateko merkatuarekin sustraituta egonez gero. European horrela pentsatzen da.

Duela lau urte Espainiako Bankuaren filosofia aldatu egin zen, European inork ulertzen ez zuen estrategiari ekin zion: erakunde txikien arazoak saihesteko, erakunde horiek batu eta batu, sakoneko arazoa konpondu ez baizik eta atzeratuz. Kontua da hori jadanik zalan-tzan dagoela, ez bakarrik European, baita Espainian ere. Espainiako Bankuko lehendakari-tza exekutiboa aldatu egin da eta gauzak beste modu batean ikusten ditu orain.

Hori hain begi-bistakoa izanik, nolaz ez dute aurrezki kutxetako gestoreek ezer egin politika horren kontra?

Komunikabideek ere ez dute ezer esan. Goi mailako politikarien artean

mezua zabaldu eta besterik gabe onartzen zen. Horrek adierazten du kritika ekonomikorako daukagun gaitasuna zein den. Lau urtez errepikatu izan da “Espainiako Bankuak esaten badu...”, zentzugabea da. Are okerrago, Euskal Herrira irizpide horiek ekarri dira, hemengo finantza erakundeak oso ondo zeudenean. Kaudimenik gabeko erakundeak erosi dira, bertako kutxen kaudimena nabarmen murriztuz, BBKri Cajasu-



rrekin pasa zaion moduan. Horrelako operazioekin segitu izan balute kiebran ginateke. Baina hala ere inork ez ditu gestoreak zalantzan jarri. Kutzak ez dira erakunde autonomo soilak, bertan ardura publiko eta politiko nabarmenak daude.

Banku handi bat sortzeko interesa aipatu duzu lehen, bigarren BBVA bat egin nahi dela ere esan izan da.

Proiektuan mahairatzen den estrategia hori da: banku handi bat sortu, eta bertan beste inbertitzaile batzuk sartu, baina zati garrantzitsu bat Euskal Herriko agenteen eskuetan mantenduz. Alegia, eragina izan banku handi batean. Eskema horren eta BBVAk izan duenaren artean paralelismo asko dago. Gainera, pertsona konkretu batzuk, Mario Fernandez adibidez, BBVA-tik datoz.

Esamesak logikoak dira, beraz.

Bai, baina deigarria da honen guztiaren atzean egon den kritika falta. Talde gutxi batzuk mugitu dira, LAB sindikatua adibidez, eta momentu zehatz batzuetan ELA ere bai. Baina alderdi politikoen artean ez, Bilduk deklarazioak egin izan ditu, baina ez da egon kritika sakon bat edo mugimendu sozial sendo bat aurka egiteko. Horrelakoetan beti daude ezagutzen ez ditugun kontuak edo arazoak. Oso kezagarria da gertatzen ari dena.

Zer dago jokoan, Kutxabank hirugarren inbertitzaile batzuen eskuetan geratzea?

Ez da mugimendu zehatz batean gertatuko, joera logiko baten barruan baizik. Banku handien estrategian sartuz gero, gero eta kapital gehiago beharko da, eta Euskal Herria oso txikia da horrelako erakunde baten kontrola mantentzeko.



“Etengabe ari gara presumitzen Arrasateko esperientziaz, baina beste kooperatibizatze prozesuak oso motel doaz”.

Neguriko familiek ere momentu jakin batean BBVAren kontrola galdu zuten. Bankua zenbat eta handiago izan, kapitalak orduan eta dibertsifikatuagoa izan beharko du, hori ziur.

Zein da alternatiba?

Bi aukera ditu Kutxabanke: atzera jo ala aurrera egin. Zurrumurruak daude aurrerantz egingo duela itsu-itsuan; *Cinco Días*en albiste batzuk agertu dira esanez Banc Sabadell-ekin operazioa lotzen ari direla. Ez dakigu egia ote den.

Beno, badago erdibideko beste aukera bat, kapitalaren gehiengo

“Wall Streeten eta Cityn hasi dira hitz egiten dena lehertu aurretik banka birmoldatzeaz, zorrak ez kobratzeaz”

galdu behar bada, lortzea kapitalaren %51 behintzat hemengo erakundeetan geratzea. Nola? Erakunde publikoen inplikazioarekin. Baina ondo aztertu beharko litzateke.

Zuek zer planteatzen duzue?

Atzera jo eta banku bihurtzearen orde bestea egitura juridiko bat erabiltzea: aurrezki kutxa izaten segi, hasierako bat egite proiektuak zioen bezala, edo guk proposatu moduan, kooperatibizatzeari ekin. Kreditu kooperatibek indar handia eta arrakasta dute European, eta aurrezki kutxen eredutik hurbil daude. Frantzian, adibidez, aurrezki kutxak kreditu kooperatiba bilakatu ziren. Erakunde publikoen parte hartze handia izan dezakete gainera.

Kooperatibek krisien aurrean erreakzionatzeko gaitasun handiagoa dutela esan izan duzu, lanpostuak lehenesten dituztelako, besteak beste.

Estatistikoki, krisialdian kooperatibek joera hobea dute kapital enpresek baino. Baina dena esan beharra

dago, krisialdirik ez denean beste enpresak baino gutxiago hazten dira normalean. Horregatik ekonomiaren zati txikia izaten dira epe luzera.

Dena den, eredu kooperatiboak ezberdindu behar dira. Nekazal eta kreditu kooperatibek oihartzun handia dute mundu osoan, lan kooperatiben kasuan berriz, leku batzuetan arrakasta izan duten arren (Euskal Herria, Italia iparraldean...) presentzia txikiagoa da. Zergatik funtzionatu dute lan kooperatibek toki batzuetan eta beste batzuetan halakorik ez dago? Garbi dago sistema kooperatiboak arazo batzuk dituela, autokritika falta zaio hazteko gaitasun HANDIAGOA zergatik ez duen ulertzeko.

Gurean MCC da talde kooperatibo handiena. Nola ikusten duzu?

Talde berean enpresa asko daude, sektore askotakoak eta egoera

ezberdinetan. Baina oro har kooperatibei buruz esan duguna egiazta dezakegu, hau da, krisien aurrean portaera erlatibo hobea izaten ari direla. Eskura dituzten tresnak ondo kudeatzen badi-tuzte, eta nik uste horretan ari direla, seguruenik jarduera batzuk itxi beharko dituzten arren, beste enpresek baino ibil-bide hobea izango dute.

2011n onartutako plan estrate-gi-koaren helburu nagusietako bat nazioartekotzea da; duela gutxi bi kooperatiba ireki dituzte Txinan. Zer iruditzen zaizu joera hori?

Kasu batzuetan kooperatiben-tzat nahitaezkoa da kanpoan ezartzea. Dena den, ezarpen horiek askoz arriskutsuagoak dira kapital enpresetan koopera-tibetan baino. Kooperatiben kasuan, jabetza oso lotuta dago langileei eta bertan mantentze-ko joera dago; zailagoa da epe motzeko errentagarritasun kon-tuengatik deslokalizazio proze-suetan sartzea. Erakunde politi-koak adi ibili beharko lirakeke nazioartekotze programak bul-tzatzen dituztenean, askoz jarre-ra diskriminatzaileagoa eduki beharko lukete eta ondo neurtu epe ertainera deslokalizaziorako arriskua ote dagoen.

Eredu kooperatiboaren "autokriti-ka falta" salatu duzu. Azaldu ezazu hobeto.

Autokritika ez kooperatiba moduan, baizik eta herri moduan. Etengabe ari gara pre-sumitzen Arrasateko esperien-tziaz eta ez gara konturatzen beste arloetan kooperatibizatze prozesuak oso motelak direla. Italiako, Alemaniako eta Fran-tziako zerbitzu kooperatibak ikaragarriak dira, eta konpara-tzen hasiz gero hemen ez da ezer egin. Oso esperientzia kon-kretu eta garrantzitsua dugu, baina ez dugu gaitasunik ikusteko gure hutsuneak non dauden, eta horrela ez dugu aurrera egingo. Kooperatiba federazioek ardura hori hartu beharko lukete herri moduan, eta aztertu beste arloetan ere

zer egin behar den, gauzak mugitzen hasteko.

EAEko hauteskundeak gainean ditugu eta hautagaiak hasi dira euren proposamenak egiten. Zer sumatu duzu faltan?

Politikariak kontu publikoekin itsututa egon dira, baina kontu publikoen arazoak arlo pribatuko desoreken ondorio dira. Zergez eta aurrekontuez hitz egitea nor-mala da, baina zor publikoa epe ertainera orekatuta mantendu nahi bada, jarduera pribatua mar-txan jarri eta indartu behar da. Horren inguruko eztabaidarik ez da ikusten.

Espainia erreskatearen atarian da eta baldintza oso gogorrek izango omen dira. Zer ondorio ekarriko du?

Helburua da epe motzera neurri oso gogorrek hartzea epe ertain-nera ekonomia indartzeko. Guk beste finantza krisi batzuk azter-tu ditugu eta batzuetan atera izan dira austeritate neurri gogo-rrak aplikatuz. Baina kasu hone-tan zaila da, krisiak dimentsio handia duelako eta orokorra delako. Gainera krisitik ateratzea ezin da helburu bakarra izan, krisitik ateratzeko eta kostua ordaintzeko modu asko baitago.

Zorra ez ordaintzea ez al dago mahai gainean?

Ez nuke esango mahai gainean ez dagoenik, beti azaltzen da aukera hori alde batetik edo bestetik. Eurotaldeak uztailen sinatu duen memorandumean nolabait hori agertzen da: ban-kuai partzialki laguntza emanez gero, galeren parte bat hartze-kodunei egotzi behar zaiela. Kontzeptu bera da. Wall Stree-ten eta Cityn hitz egiten hasi dira dena lehertu aurretik banka birmoldatzeaz; *The Economist*ek edo Ingalaterrako bankuko arduradunek ere horretaz hitz egiten dute, zorrak ez kobra-tzeaz... Noski, fak-tore politiko asko dago, eta zeharkako neurrien bidez ere egin daiteke. ■



VITORIA GASTEIZ

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

XTRAKLUB!

12 eta 18 urte bitartekoentzat

> **Kultur bidaia eta irteerak**

- Zuhaitzen gaineko ibilbidea Baztanen. Urriak 14
- Donostia eta La Perla. Azaroak 4

> **Xpress lantegiak**

- Crepeak prestatzen. Urriak 19; 18:00-20:00
- Birziklapena. Urriak 20 eta 27; 18:00-20:00
- Zure txirringa konpontzen. Azaroak 3; 17:30-20:30

MINTZALAGUNA

Euskara ikasten ari bazara, aspaldian ikasi bazenuen eta ez baduzu norekin hitz egin... Hona hemen aukera ezin hobea: **Mintzalaguna**. Baldintza bakarra, 6. urratsetik gorako maila izatea.

Tel. 688 819 118

mintzalaguna@geugasteiz.com

www.gasteizkomintzalaguna.com

Urtero mintzalaguntzaileak behar izaten ditugu, aurten animatuko al zara?

ZINEMA

Beldurrezko film laburrak

Urriak 26. 19:00. Ignacio Aldecoa Kultura Etxean

30 URTE, HAMAIIKA ORDU BERTSOTAN

Arabako Bertsozale Elkarteak, bertso eskolen 30 urte bete dituztela ospatzeko, 11 ordutako egitarau oparoa antolatuko du. Honakoa:

- 11:00** Bertso berdeen landaketa Amaia Zentroan
- 12:00** Bertxorakeriketa Amaia Zentrotik Kutxi kalera
- 14:30** Bazkaria Landatxon.
- Izena emateko: araba.sustapena@bertsozale.com
- 16:30** Bertxorakeriketa finala Landatxon
- 18:00** Bertso-dantza plazan Landatxon
- 19:00** Bertso-batukada Landatxotik Jimmy Jazzera
- 20:30** Gala Jimmy Jazzen Bertso-saioa, bertso-sortak, bakarriketa...
- 22:30** Bertso Tavern Jimmy Jazzen

Informazioa
Udaleko Euskara Zerbitzua
Sta. Maria 11, Tel.: 945161522
www.vitoria-gasteiz.org/euskara

Maite dugun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

GUREOLA - CELULOSAS HERNANI

Langileek ez dute itotzen utzi nahi paper fabrika

Gipuzkoako paper usina klasikoetakoa den Gureolak ehun urte ospatu behar zituenean, obreroek turnoka zaintzen dizkiote egoitza eta makinak. Argia eta gasa moztuta, irtenbiderik ikusi ezinik, urte luzez ogibideaz gain produkzio kultura izan dutenari eusten diote.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

FABRIKA ITOLARRIAN gehiagotan ere ikusia dute Gureola-Celulosas Hernaniko langileek. Azkena, 2011ko azaroaren 6an. 1983ko uholde mitikoan ikutu ez zituenak, Urumeak metro eta erdiraino estali zituen. Ehunka tona paper merkaturatzeko prestatuak, betiko hondaturik, dozenaka motor urak eta lohiak itota. Nagusiek 5 milioi euroko galerak aipatu zituzten.

“Hamabost egun baino lehen dena garbitu eta konponduta, berriro produzitzen ari ginen” dioskute harro langileek. Oraingoan, ordea, leporaino iritsi zaizkie urak.

Hornidurak, argindarra eta gasa etenik, nagusiei aurrera jarraitzeko fundamenturik ikusten ez dietela, ahal dutena salbatzeko mobilizatzen dira langileak. Astean bitan Hernaniko plazan agertzen dituzte beren buruak pankarta baten bueltan. Ugazabekin, hornitzaileekin, agintariekin, negoziatzen dute.

Bitartean, etengabe zaintzen dute fabrika, egoitza eta makinak osorik mantentzeko. Hernaniko errugbi zelaia eta trenbidearen artean, urteurrena ospatu behar zuen lantokiak eta 47 langilek geroa daukate jokoan.

Mendeurrenaren urtea zen

Gipuzkoako industria klasikoetakoa bat izan den papergintzaren gainbetera irakur daiteke Gureolaren historiaren orrietan. 1912an Gregorio



PELLO ZUBIRIA KAMINO

Celulosas Hernaniko langileak Zinkoeneako plazan konponbidea aldarrikatzen.

Mendiak sortua, 1966ko hamarkadan Scott multinazionalak erosi zuenean kasik 500 langileri ematen zien jorna. Papertegi integral moduan, inguruko pinudiak ustiatzetik hasita paperezko produktu elaboratuak saltzerainoko prozesu osoa egiten zuen.

Ondoko urteetan eraitsiz joan ziren paperolaren atal osoak: prozesuaren hasierako muturrean, zuretik zelulosa sortzeko errota, beste muturrean produktuak

bukatzeko manipulatu, sare komertziala...

Scottek Gureola betiko iteko plana azaldu zuen 1997an. Oraingo beharginen artean badira orduan fabrika itxi ez zezaten lana gogor egin behar izan zutenetako ale batzuk. Azkenean ez ziren geratu 30 baizik, gainerakoak kalteordainak kobratuta joan ziren etxera.

1999an Gipuzkoako papergile talde batek erosi zuen Gureola, tar-

tean Errenteriako Papelera Españolako jabeek. Ordurako Oria eta Urumeako paperola famatu asko desagertuak ziren, ondorengo urteetan suntsituko ziren beste batzuk.

Geroztik, jabe aldaketa bost urtean behin. Jofel izeneko elkar-teak bereganatu zuen Gureola, bost urteren bueltan Beasme izeneko beste bati saltzeko... eta honen eskuetatik harturik 2011n jabetza berri bat estreinatu zen, Web Ray eta Gure Tisu enpresek osatua.

Gureolak *tisu* papera ekoizten du, sukaldean eta komunean usatzen dugun horretarik. Merkatuan horren eskari handia dagoela-eta, 1968an ekarritako *Black Clawson* makinaren ondoan -40 tona paper egunero- 2007an *Toscotec* markako berria sartu zuten -60 tona egunero- 8 milioi eurotan erosirik.

Irtenbide zaila

Azken urteotan gauzak estutuz joan zaizkie. Makina berria abiarazteko espero baino koste handiagoak, ingurumen arau berriak betetzeko egin beharreko inbertsioak, argindarraren eta gasaren garestitzea, egin-dako inbertsioen ordainketek sortutako tentsioak... Solaskide ditugunetako langile bat izan zen lekuko 2009an orduko jabearen eta urte luzez Gureolako zuzendaritza eraman zuen Juan Miguel Etxeberriaren arteko eztabaida sutsuaz, honek aurpegiatzen baitzien ugazabei martxa hartan Gureola itxierara zeramatela.

Paperaren eskolako obreroak

ARGIAko kazetari honi oparia egin diote Gureolako langileek: papera egiteko makinak eta prozesuak erraizetik ezagutzea. Ilunabarra da, usina beltz. Goardian dauden behargin gazteek argitu dituzte linternaz zaharragoen argibideak. Hemendik sartzen dituzu birziklatzeko paper eta karto muturrak eta ehunka metroko joan-etorria eginik paper garbia eskuratuko duzu hango beste muturrean. Produktzioak agintzen du, makinak nahi bada. Ugazabak ustiatzen zaituela badakizu, hala egokitzen bada oldartuko zatzaizkio, baina zuk zure lana ondo egingo duzu. Paper ona egiten dugu (genuen?) Gureolan. Hemen halako arazo teknikoa geneukan eta Urliak konpondu zuen. Ikasketarik gabe sartutako askok papergintza ikasi du gero. Familiak atera dira fabrika honetatik, ehun eta gehiago emakume ezagutu dira hemen manipulatuan. Nork ez ditu erabili ipurdian edo ezpainetan *Scottex* edo, aspaldiago, *Garby* markakoak? Ni ezagutua naiz aurreko birmoldaketa gogor hura. Baina oraingoan garaiak latzagoak dira.

Egoitza Getxon daukaten Web Ray eta Gure Tisu enpresak dira Gureolaren jabe azken urte eta erdian. Sartu berritan langileei aipatu zieten 10 milioi euro inbertitzeko asmoa, hirugarren makina bat ekartzekoa, Kanadako talde bat zeukatela diruz babesten. Horien ordeztolarria heldu zen.

Hornitzaileei xuxen pagatzeko fama zuen enpresa gaur horietako askorekin zorretan dago, tartean Hernaniko eta inguruetako enpresa

txikiekin. Cellmark finantzariak kontrolatzen dizkio erosketak eta salmentak.

Uztailaren 30ean produkzioa gelditu zuen hornidura faltan. Aurretik, langile batzuk iritsiak ziren zenbait osagai beren sakeletik pagatzera. Papera etenik gabe ekoizten ari den batentzako bekaturik larriena baita makinari gelditzen uztea. Abuztuaren 1ean Iberdrolak argia eten zien. Gasa beranduago.

Langileek bi hilabete daramate gau eta egun fabrika zaintzen, txandaka, lapurren batek makinak betiko hondatuko dituen beldurrez. Edo norbaitek isilpean eraman. Erostenen bat agertzen bada, berehala abiarazteko. Likidatzen bada, saltzeko moduan egoteko. ■



Produktzioa gelditurik eta hornidura, argindar eta gasak etenda, 47 langileek bi hilabete daramatzate gau eta egun Gureola zaintzen eta irtenbidea aldarrikatzen



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



**Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua**

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Nola heltzen da independentziara?

Katalunian independentziaren aldeko aldarria geroz eta ozenago entzuten den honetan, Legebiltzarra osatzeko azaroaren 25eko hauteskundeek autodeterminazio prozesua nola baldintza dezaketen aztertu du Vilaweb agerkariak.

| JON TORNER |

KATALUNIAKO PARLAMENTUAK autodeterminazioari buruzko galdeketa egiteko mozioa onartu izanak, independentzia-prozesuari bultzada berria eman diola uste du askok, Espainiako Gobernuak adierazi duen arren ez duela zatiketarik onartuko. Prozesuak aurrera egin dezakeen ala ez azaroaren 25eko hauteskundeetan ikusiko da, Vilaweb.cat agerkariak independentziara heltzeko bide-orriari buruzko *Com s'arriba independència* (Nola heltzen da independentziara) artikuluan (2012-09-28) dioen bezala.

Galdeketa aldekoei (CiU, ERC, ICV-EUiA, Solidaritat eta Democràcia Catalana) emaitza kasarrak lortuko balituzte, erreferenduma egiteko aukera gau horretan bertan zapuztuko litzateke. PP eta Ciutadans argi eta garbi azaldu dira galdeketa aurka. Aldiz, PSCk abstentzioaren aldeko hautua egin zuen pasa den asteko bozketan. Bestalde, galdeketa aldekoei ozta-ozta irabaziko balute, prozesua apur bat hoztuko litzateke, baina dezenteko abantailarekin irabaziz gero –Vilawebek dio gutxienez 10 puntuko aldea lortu beharko litzatekeela–, galdeketa epe laburrean egingo litzateke. Aurreikuspenen arabera, gaur egungoaren antzeko Parlamentua osatuko da azaroan, eta hori nahikoa litzateke prozesuan aurrera egiteko.

Espainiako Gobernuaren jarrera

Artikuluak nabarmentzen duenez, Espainiako Gobernuarentzat ez da uste bezain erraza izango galdeketa bertan behera uztea, auziak Espai-



Auziak banu, balego eta balitz ugari planteatzen ditu, baina Vilawebek dioen bezala, irailaren 11ko Diadaz geroztik prozesuak izugarri azkar egin du aurrerantz.

niako mugak gaindituko lituzkeela. Alegia, Europako gai-ordenean sartuko litzateke, nolabait esatearren, eta hari ateak ixteak nazioartean zalaparta eragingo luke, herriarrek bozkatutako Parlamentu baten ekimena den heinean.

Kataluniako Gobernuaren hiru aukerak

Espainiak ezezkoa emanez gero, Kataluniako Gobernuak hiru aukera izango lituzke. Bat: debekua onartzea –ez dirudi gertatuko litzatekeenik–. Bi: galdeketa baimenik gabe egiten saiatzea. Eta hiru: debekuen aurrean, Parlamentuan independentzia aldarrikatzea.

Galdeketa egiten saiatuko balitz, emaitzak arazoak ekarriko lizkioke Espainiako Gobernuari. Ezezkoa-

ren aldeko herritar askok ez lukete bozkatuko, baina Europako instituzioek ez lukete onartuko abstentzio guztiak kontrako bozka bezala zenbatzea.

Bestalde, Kataluniak independentzia aldarrikatuko balu, auziak nazioartera salto egingo luke, batez ere Europako estaturen batek onartuko balu. Apurka-apurka geroz eta estatu gehiagok onartuko balute, eztabaida beste maila batean kokatuko litzateke.

Auziak galdera ugari planteatzen ditu, banu, balego eta balitz ugari, baina Vilawebek artikularen amaieran dioen bezala, irailaren 11ko Diadaz geroztik prozesuak izugarri azkar egin du aurrerantz. ■



Presio ikusezin eta etengabeak

GOBERNUEK, POLITIKARIEK eta euren terminal mediatikoeak, salbuespen batzuk kenduta, uste dute herritarrek itsuak, gorra eta tun tunak gabela. Joan den astean berriz erakutsi dute hori, Espainiako Kongresuaren aurrean Madril-en egin diren kontzentrazioen harira. Murrizketen eta politika kapitalisten kontra bildu dira, Gobernuaren dimisioa eskatzeko, politika alternatiboak eta solidarioak exijitzeko. Esaten dute Kongresua herriaren burujabetzaren etxea dela, ukiezina dela eta herritarrek ezin dutela okupatu, ezta inguruetan manifestatu ere. Saihestu behar omen da diputatuenganako presioa. Horretarako, Espainiako Gobernuak Parlamentua inguratu zuen 1.300 poliziarekin; armak, txakurrak eta zaldiak erabili zituzten herritarrei oldartzeko, eta zauritu eta atxilotu ugari izan ziren.

A zer zinismoa presioaz eta askatasunaz hitz egitea. Kongresu hau, ia beste guztiak bezala, “merkatuek” eta espekulatuzaileek zelatzen dute (banku handiek, pentsio eta inbertsio funtsek, multinazionalak...). Hori da egiazko presio ikusezina, ez baitute fisikoki Parlamentua inguratzen, baina bai etengabe. Eta ondoko izenak dituzte: Alemaniako eta Frantziako banku handiak, EBZ, NDF, Merkel, Botin, Gonzalez, Galan, Alierta, Rosell... Horiek presionatzen dituzte egunero Rajoy eta bere politikariak, euren interesen zerbitzura gobernatu dezaten. Murrizten segi ditzaten langileen, pentsionisten eta menpekotasuna dutenen eskubide laboralak eta sozialak, baita Espainiako Estatuko nazioen eskubideak ere. Presio ikusezina bai, baina sakona, etengabea eta bortitza! ■




Juan Mari Arregi

Isidro eta Manuelek baino ez dute hitz egiten zoque-ayapaneco

ISIDRO VELÁSQUEZ eta Manuel Segovia Ayapakoak dira, Mexiko hego-ekialdeko Tabasco estatuko biztanleak. Elkarrekin hitz egiten dutenean baino ezin da entzun zoque-ayapaneco hizkuntza; ez dago beste hiztunik haien komunitatean.

Denisse Quintero zinegileak bi aitona grabatuz dokumentala egin nahi du. Badaki ez duela hizkuntza biziaraziko, baina sikiera, hizkuntza gordeta geratuko da. Badu bestelako esperantza bat ere 28 urteko zinegile gazteak, dokumentala komunitate indigenetan eta nekazaritza guneetan erakutsiko du; haiengan norberaren hizkuntzarekiko kontzientzia piztu nahi du. Haren ustez, komunitate askok bertako kultura gutxien eta alboratzen dute, diskriminazioa oso barneratuta dutelako. Ikus-entzunezko lanari *Hizkuntza Hila* izena jarri dio eta duela pare bat hilabete hasi zen grabatzen.

Manuel Segoviaren semeak, izen berekoak, 30 urte ditu eta hizkuntza ikasten hastea erabaki du. Bost urte dira zoque-ayapaneco ikasten hasi zela eta egunero hainbat orduz aritzen da. Pena du txikitari ikasi ez zuelako. Badaki hiltzeaz den hizkuntza hau hitz egiteak inguruan ez duela pasiorik



Manuel Segoviak 77 urte ditu eta zoque-ayapaneco hitz egiten duen bi hiztunetako bat da. Behean, hizkuntza horretan idatzitako hitzak ezkerreko zutabearen.

eragingo: “Hizkuntza hau hitz egiten duzulako iseka egin edo ezizena jartzen dizkizute, hizkuntza hori indioek baino ez dutela hitz egiten esaten dizute. Hemen indio hitza, batzuentzat, iraina da, umiliazio sinboloa”.

Mexikon 364 hizkuntza dituzte bizirik, horietatik 21 desagertze bidean. ■

Bahea

Iñaki Soto Garako zuzendariak esanak, Arnaldo Otegi egindako elkarriketa biltzen duen *El tiempo de las luces* liburua gaztelaniaz argitaratu izanaz:

“Zergatik idatzi duen Otegik liburua gaztelera? Arnaldok berak erantzun beharko luke, baina hizkuntza horretan duen zehaztasuna euskaraz ez duela nabarmena da. Eta zehaztasunak liburu honetan duen garrantzia ere nabarmena da. Bide batez, idazlanen bat euskaraz argitaratu duen edonorentzat (hizkuntzalaritzan aditua ez denarentzat bederen), nabarmena da autoreak aurkeztutako testuaren eta zuzentzaileak ondutakoaren arteko aldea. Izan ere, Euskaltzaindiaren arauak betetzeko eta irakurgarritasuna errazteko oso ohikoa da euskal liburugintzan jatorrizko testuak nabarmen moldatzea.

Beste alde batetik, Arnaldok euskararekin duen konpromisoa ezin da zalan-tzan jarri, maila pertsonaletik hasi eta alor ideologikoraino joanda. Hemen koherentzia faltaren adibide bat topatu nahi duenak gezurra esan behar du”. ■

SILEX teknologiaz erregai nuklearra edonoren eskueran

Irail honetan, ezusterik jazo ezean, uranioa aberasteko teknologia berri bat onartua izango du AEBetako Gobernuak. Hori eragozteko kanpainan aritu dira azken hilabeteotan zenbait zientzialari elkarte eta politikari bakan batzuk. Hauen ustez, teknologia kontua baino gehiago da SILEX: mundu osoan arma atomiko bolada berria ekarriko du.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

UGARITZEA BAINO GOGORRAGOA da *prolifera*zioa. Energia atomikoaz ari garela *proliferación/proliferation* hitzak bere baitan biltzen du giza-diaren biziraupenak daukan arrisku nagusietakoa, alegia arma atomikoak —eta zentral nuklear zibilak— gero eta herrialde gehiagoren esku egotean hondamendi nuklearraren arriskuak handiagotu egin direla. Zerbitzengatik dira gai honetan erreferentzia nagusiak ez-prolifera-zio itunak.

Industria atomikoak ez du eskarmenturik hartzen, berdin dio Fukushima lehertu bada edo gero eta ezagunagoak izatea uranio urrituz hornitutako bonbek Irakeko eta bestetako herriarregan eragindako txikizioak. Erregai nuklearraren aroak bere legean dirau. Errukirik gabe, inolako moratoriaren zantztan minutu bat galdu barik, jauzi berrietan murgiltzen da nuklearren industria.

SILEX izena, irakurle, Paleolito-arekin lotzen baldin baduzu —gizakiak lehenbiziko lanabesak sukarki edo silexez egin zituen— hasten ahal zara ikasten bestelako esanahi hau: *Separation of Isotopes by Laser Excitation*. Uranioa aberasteko teknologia berri hori asteotan AEBetako Gobernuak baimendu behar dio maila komertzialean ekoiztea General Electric Hitachi konpainiari.

Lehendik dago test eta prototipo mailan probatua SILEX teknologia. Baina orain erakusten baldin bada teknologia bideragarria dela produktu komertzialetan, dozenaka herrialde daude hori kopiatzeko irrikiz.

Kontuok R.Scott Kemp-ek hai-zatu ditu *Bulletin of the Atomic Scientists* aldizkari prestigio handikoan. Nuklearren kontra egon gabe, *Bulletinen* idazten duten zientzialariek energia mota horren arriskuak behatzen dituzte gertutik eta batez ere arrisku militarrek; gainerako teknologia berrien behaketa zorrotza ere egiten dute.

Laserrezko prozesu hau Australia's Silex Systems Ltd. konpainiak garatu du urte luzez. Bere eremua Australiaren eta AEBen arteko itun berezi batek arautzen duenez, orain Washingtingo gobernuari dagokio hura legeztatea. Hala egingen du, energia nuklearraren kontrola darman *Nuclear Regulatory Commission* batzordeak argi berdea piztu baitio, argudiatuz berari ez dagokiola proliferazio arriskuak epaitzea.

Gai honen gakoa uranioa aberasteko prozesuaren prezioan datza. Naturan aurkitzen den uranioak %1 baino gutxiago dauka 235 uranio isotopotik; aldis, zentral nuklearretan erregaitzat usatzeko %3-4 arte aberastu beharra dago eta arma ato-

Wikipediaren osagai den *readtiger.cometik* hartutako irudian, 235 uranio aberastuz egindako taloa. Naturan aurkitzen den uranioa %99an 238 motakoa da eta gainerako pittina da 235 isotopoa, fisio nuklearrerako egokia. Erreaktore komertzialek %3-4 purutasunekoa darabilte, bomba atomikoek %85etik gorakoa. Hiroshimako triskantza eragin zuen leherkariak 64 kilo zeraman horretatik. Adituek aipatzen dute munduan gaur 235 uranio aberastutik 2.000 tona daudela, arma eta gisa askotako erreaktoretan (zentral elektriko, itsasontzi, urpeko ontzi...) banaturik. Garbiketa prozesuan bazterrean utzitako 238 uranioa ere erradiaktiboa da arinagoa izan arren; armatan usatzeko adina. 238 uranioaren %95 ondo gorderik dagoela dio Wikipediak: aberasteko prozesuan zenbat tona erabili diren jakinda, gainerako %5ak ere ikara sortzen du.

mikoetan erabilgarri izateko %80a gaintitu behar du. Hori lortzeko prozesua da garestia, teknikoki konplexua eta, horregatik, herrialde gutxioren eskutan dagoena.

Uranioa aberasteko gaurdaino zentrifugazio sistemak usatzen dira. Scott Kempek azaldu duenez, herrialde batek arma atomikoak eskuratzeko aski den zentrifugatze instalazioa kiroldegi bat adinako lekuan sartzen da. SILEXa usatuko duen laser bidezko aberaste sistemak %75 leku gutxiago beharko du, energia gutxiago ere bai, eta prozesua urrats laburragoetan burutuko du. Bomba atomikoak egin nahi dituenak errazago disimulatuko ditu.

Prolifrazioaren Fukushima

Fabrikatu eta saldu nahi duen konpainiak dio SILEXa oinarrituta dagoenez laser arras konplikatu batean, zentrifugatzaile klasikoak baino errazagoa ez dela antolatzen herrialde batentzako. Baina laserra delarik gaur fisika aplikatuan bizkorren garatzen ari den alorretako bat, muga hori gaintitzea denbora laburreko kontua da.

MIT, Princeton eta Harvard unibertsitateetan irakasle eta ikerlari den R.Scott Kemp doktorea espezializatua dago uranioa aberasteko prozesuetan eta baita segurtasun



zentrifugatzaileek adina arrasto kimiko edo termalik isuriko airera.

Antza denez, laser bidezko aberaste nahiak aspaldikoak izanik, duela hamahiru urte, 1999an, AEBetako Estatu Departamenduak ohartarazia zuen gisa honetako sistema batekin “instalazioa detektatu gabe eraikitzea errazago izango da eta bertan eraginkortasun handiagoz ekoiztuko da arma nuklearrak eskuratzeko programa batek behar duen uranio oso aberastua”.

Scott Kemperrek salatu duenez, kezka horientzako antidotoa badute General Electric Hitachi erraldioari baimena eman nahi dioten funtzionarioek: AEBetan baimentzen ez badute, Silex System konpainiak beste nonbait ekoiztuko duela. Baina hori horrela bada, ageri bada teknologia honek komertzialki ez dakarrela aurrerapenik baina bai arrisku handiagoak arma atomikoen ugaritzean, orduan AEBek egin behar dutena da, dio Scott Kemperrek, ez-proliferaizazio itunetan proposatzea teknologia horren debekua.

Hala ere, ez doaz urak hortik. Gutxienez 27 herrialde dabilzala laserrezko aberastearen inguruko ikerketetan. Hego Korea eta Txinak laserren adituak kontratatzen dituzte AEBetan bertan.

Entzun R.Scott Kenperri: “Gai batean arautzeko ardura duenak arautzen ez badu, ondorio katastrofikoak dakartza. Kongresuak edo NRCK esku hartzen ez badute orain, AEBentzako SILEX gerta liteke proliferazioaren Fukushima”. ■



arloan ere. Estatu Departamendua-
ren aholkulari jarduna da prolifera-
zio eta armen kontrol gaitan. Eza-
gutza horretatik eskatu dio
AEBetako Gobernuari SILEX tek-
nologia komertzializatzeko baime-
nik eman ez dezan.

Alde batetik, teknologiaren aban-
taila komertziala ezbaian jarri du.
Erregai erradiaktiboen prezioan
aberaste asko sartzen dira eta ez dago
demostratuta SILEXarekin zentral
nuklearrei *jakia* merkeago aterako
zaienik. Bestela esanda, sarritan
enpresa publikoak diren zentralek
berdintsu ordaindu beharko dutela
erregaia, eta, aldiz, hornitzaile pri-
batuek aterako diotela etekina tek-
nologia berriari.

Inork uste badu AEBetako kon-
painiek SILEXarekin merkatu
berriak irekiko dituztela, lilura
hoztu die Scott Kempek: teknolo-
gia hau ez da izanen orain arte zen-
trifugatzailez uranioa aberasten
dutenen osagarri, horiei lekua har-
tzera dator. Alegia, usina berria ireki
lehengoa ixteko.

Baina abantaila ekonomiko argi-
rik ez duen bezala elektrizitatea
nuklearretan sortzeko prozesuan,
arrisku berriak sortzen ditu SILE-
Xak proliferazioari dagokionez.
Laser bidezko aberaste sistema leku
txikiagoan eta arinago funtziona-
tzeko gai izateaz gain, kanpotik
detektatzeko ere zailagoa da: publi-
koki aitortu gabeko instalazio bat
nekezago hautemango da, ez baitu





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Badoaz

KATALUNIAko burujabetza prozesuaren azkartasuna sinesgaitza egiten da ia guztientzat, baita Kataluniako independentistentzat ere, nahiz eta haiek badoazen, zurrumbiloak gero eta indar handiagoz eramanda. Duela bi hamarkada independentismoa populazioaren %20ra ozta-ozta iristen zenean, gaur egun herritarren erdia da independentista irailaren 11ren manifestazioaren aurreko inkestaren arabera. Orain goraka egingo zuen seguruenik. Azaroaren 25ean ikusiko dugu lehenbiziko neurgailu garrantzitsua hauteskunde autonomikoetan.

Alderdi independentistek aise irabaziko dute, oso erraz, eta hortik aurrera hasiko da korapilatzen egoera. Herritarren agindu handi horretan, legebiltzar berriak kontsulta deituko du, eta ezezaguna da gauzatu ahal izango den ala ez. Hau da, zer egingo du Espainiak? Bi tresna garrantzitsu ditu: Kataluniako autonomia estatutua bertan behera uztea eta kontsulta indarrez saihestea. Zerbait egitekotan ere, oso posible da autonomia suspenditzea, edo eskumen batzuko...

INDARRAREN erabilera irudika ezina da gaur egungo European, ezin da ikusi Espainiako armada Bartzelonako kaleetan ezer galarratzen. Eta bai, ez da samurra argazki hori irudikatzea, baina iraganera begiratuta, komeni da ez ahaztea orain arteko ataka historiko guztietan, Espainiak armadarekin konpondu duela bere lurralde batasunaren edozelako auzi. Beti.



Baina, hala izango ez den lehenengo bat ere hau izan daiteke. Aitor-tu behar da, halaber, Bizkaia eta Gipuzkoaren muga den Kanpazarko gainean edo Nafarroako Zuastiko autopistan Guardia Zibilarren kontrolak ikusteak, Espainiaren indar erabileraren beste ikuspegi bat ematen duela.

Bestetik, Artur Mas eta CiU desobedientziaren bidean? Irudika dezagun erreferenduma edo kontsulta egin egiten dela, 2013an edo 2014an. Espainiak barreiatuko lukeen beldurra, independentisten ilusio askatzailearen aurka. Laburbilduz hori litzateke aurrez aurrekoa eta kontsulta 2001ean egin balitz, Espainiaren burbuila ekonomikoaren gailurrean, beldurra- ren eragina oso handia litzateke. Baina orain kontrakoa da, Espainiatik aldentzeko aukerak independentismoa hauspotzen du, Katalunian bereziki, baina baita euskal lurretan ere.

Ongizatearen independentzia deitzen zaio horri, arrazoi ekonomikoetan sustraitutako abertzale-tasuna; identitatean sustraitutako euskal abertzaletasunak batzuetan

gutxitu egiten duena, baina herritarren borondatearen ispilu den neurrian, identitatearena bezain errespetagarria, eta akaso erabakigarriagoa ere bai.

EUSKAL HERRITIK so eginda, gaitza da ahaztea Espainiak nola zapuztu zuen Ibarretxe plana, lehenbizi Espainiako Kongresuan eta, ondoren, kontsultaren debekuan. Hainbat arrazoiengatik, EAEn ez zen ezer gertatu,

Madrilek bere indarra baliatu bazuen ere, ez zen erreakziorik izan, ez gizartean, ez instituzioetan eta ez alderdi abertzaleetan.


Bai, batetik, egoera eta kasuak oso desberdinak dira: independentismoaren bide-orriak Kataluniako gizartearen oso sostengu zabala du, ez dago prozesu hori kaltetzen duen borroka armaturik, Eusko Jaurlaritzaren zatiketa agerikoa zen EAEn, EAJren barne tentsioa... Bistan denez, Kataluniako gizartea askoz kohesionatuagoa ageri da oraingo prozesuaren bidean. Azaroko geltokian ikusiko da alderdi bakoitzak —baina funtsean CiU— zein argitasun mailarekin aurkeztzen duen independentziaren aldeko mezua.


Bitartean, Europar Batasuneko lehendakariorde Viviane Redingek berriz zapuztu du espainiar agintari eta hedabideen beldur mezu nagusia eta, *Diario de Sevilla*n egindako elkarrizketa batean argi utzi zuen bere iritzia: ez dago legerik esaten duenik Kataluniak independentzia lortuz gero EB utzi beharko lukeela. ■



ASTE HONETAKO

zozketa





-alde Zaharra- Donostia

**A fuego negro
jatetxea**

2 lagunentzako afaria

Abuztuaren 31, 31
Donostia GIPUZKOA

www.afuegonegro.com

1



STM
San Telmo Museoa

**San Telmo
Museoa**

5 harpidedunentzat
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

2



Ekain berri

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3



**Bilboko
Euskal Museoa**

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

4



**Kirolaz
Badakit**

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2337. Argia)

ATXASPI HOTELA

- Juan Mari Lasa Tolaretxipi (Donostia)

INGURU ABENTURA Espeleologia II. maila

- Jose Markalde Nafarrete (Gasteiz)
- Arturo Kanpion Kultur Elkarte (Iruñea)
- Inaki Zubeldia Otegi (Ikaztegieta)

MUNDUKO IPUINAK

- Aitziber Dorronsoro Aizpurua (Deba)
- Javier Duoandikoetxea (Arrigorriaga)

SAN TELMO MUSEOA

- Mikel Ibarguren Errastia (Ziburu)
- Andoni Alba Salaberria (Iruñea)
- Kerman Rekondo Arzallus (Usurbil)
- Hilario Berasatei Arrieta (Idiazabal)
- Antton Idiakez Korta (Ezkio-Itsaso)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Joxe Aizpurua Iruin (Hernani)
- Karmen Zelaia Etxeberria (Bilbo)
- Fernando Bustillo Maestro (Donostia)
- Inazio Usarralde Arantzadi (Lazkao)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



Euskara buruan eta ibili munduan.

Kultura garatzen duten ekimenei gure laguntza eskaintzea.

Gure **hizkuntza** sendotzen duten jarduerak babestea.

Eta hori guztia gogoz **abian jartzea**.

Horra **kutxa**k gizartearekin egina duen hitzarmena.



Urriak 7. Andoaingo
Aita Larramendi Ikastola

